

uk

138. zenbakia / 2008 maiatzak 26



feria de artesanía GETXO eskulangintza azoka



2008ko maiatzaren 30etik ekainaren 1era • del 30 de mayo al 1 de junio de 2008

Pza. la Estación de las Arenas-Areeta

11:00 - 14:30 / 17:00 - 21:00h. sábado 11:00 - 14:30 / 17:00 - 21:30h. Entrada gratuita • Sarrera dohainik



bbk



metro bilbao

ELCORREO

Non zer

4. GU GEU.

- 5. IRUDIA. Aireko langileak, Asier Mentxaka.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako geltokia 1962-2008.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Manuel de la Concepcion.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Umeen Euskara Eguna Getxon.
- 28. ARGAZKIA. "Sireno del rio de La Plata", Marcos Lopez.
- 30. BERBETAN. Miren Dobaran, Zuberoa Iturburu.
- 34. FOTOGRAFIA. Jorge Yeregui, GETXOPHOTO 2007.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Zine denboraldiaren amaiera.
- 43. MUSIKA. Getxo&Blues. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Zulo bat uretan, Iñigo Aranbarri. Liburuaren erreseinak.
- 45. KIROLAK. Barrikako Abaroa Tennis Kirol Taldea.
- 46. ELKARRIZKETA. Jokin de Pedro.

AMAITZEKO

- 49. NON JAN. Bartzelonako La Rian.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Areetako Zugatzarte futbol taldea 1932-33, Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Garazi Falcon, Ander P. Goikoetxea.

AZALEAN: Sugandila, 2008ko udaberria



30 Miren Dobaran



11 Manuel de la Concepcion

Berbetan

Berangoko alkate ohia, euskal filologoa eta Aldundiko Euskara Sustapenerako zuzendaria. Euskararen aldeko langile nekazina.




46 Jokin de Pedro



34 Jorge Yeregui



14 Nerea Sainz de Murieta



54 Garazi Falcon



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak

www.renaultleioa.com

Iparagirre 94 • 48940 LEIOA • BIZKAIA
Tel.: 94 480 46 02 • Faxa: 94 480 42



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea,
Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentraka

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILEAK: Bitor Egurola,
Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana,
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara
Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF


LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko parteidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

www.todosconelsahara.com

Proposamen batez gatz oraingoan, irakurle, elkartasun adierazpen bat egin dezagun eskatuz/proposatuz. Saharar herriari askatasuna itzultzeko aldarrikatuz (*beste behin, "Quosque tandem...!"*) oraingoan *Todos con el Sahara* plataforma sinadura-bilketa egiten dabil. Aurpegi ezagunen atxikimendua lortu dute dagoeneko, baina horiek baino beharrezkoagoak eta garrantzitsuagoak dira herritar ezezagunen bultzadak, kasu honetan sinadurak. 33 urte dira 200.000 saharar baino gehiago egoera larrian eta baldintza latzetan euren lurretatik urrun, errefuxiatu kanpamenduetan, bizi direla. Eta hamaika aldiz esan badugu ere, berriro ere nahikoa dela ozen esateko aukerarik ezin da galdu. Horrenbestez, saharar herriaren egoera salatzeko eta bere eskubideak aldarrikatzeko zein elkartasuna adierazteko aukera hau baliatu gura duenak bere atxikimendua eman dezake goian aipatutako web orrialdean irailaren 15era arte.

UK-ko lantaldea

egon ginen > Lamiakoko euskal jaia



Baserrira omendu zuten Lamiakoko II. Euskal Jaian, maiatzaren 10ean, larunbata. Lamiako Maskaradak antolatatu zu, baina herriko hainbat talde eta jai batzorderen laguntza izan zuen. Goizetik euria jauzi arren, auzotar asko animatu zen jaiaren parte hartzerara eta baserritarrez janztera. Umeentzako tailerrak, trikitalariak, txosna... Giro alai txoko guztietan. Bazkarian 200 lagun elkartu ziren indabak jateko, eta irrintzi lehiaketan maila itzela erakutsi zuten. Dantza erakustaldiaren eta jokoen ondoren, erromeria hasi zen, baina... noiz amaitu ete zen? Eta zelan?


uk

gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[irudia]



2008KO MAIATZA

Aireko langileak / Hegazkineko pilotuak bere laguntzaileari trapezistak agurtzeko esan ei zion, eta irribarre zuriko laguntzaile ederrak mosu bat bota ei zien argi-indarreko kableak konpontzen ziharduten bertigo bako langileei... Zintzilikatutako beharginek uzkerrik ez botatzeko eskatu ei zioten hegazkinari, badaezpada aire korronteak oreka galarazi ez ziezaien... Oinezkoak gora begiratu eta ez omen zuten elkarrizketa ulertu, baina zer gerta ere aurreko espaloira gurutzatu ei zuten. Handik hamabost egunera, usain txarreko mosu baten eraginez elektrizitate-kableak konpontzen zegoen langile bat zorabiatu eta Uribe Kosta osoa argi barik utzi zuelako berria plazaratu zuten aldizkari batek... Edo, ez, agian ez zen horrelakorik gertatu! ○ / Argazkia: **Asier Mentraka**



MERKATARITZAKO LANGILE HAUEK ZUREKIN EUSKARAZ BERBA EGIN NAHI DUTE. IKASTARDA EGIN DUTE HOKRETRAKO, ZERBITZUA EUSKARAZ EMATEKO. EUREN AHALEGINA ESKERTZEKO MODURIK ONENA EUSKARAZ EGITEA DA.

GALDARETXE GOZOLABEA (OBRADOR)
 PERSIANAS, TOLDOS Y MOTORES LBF
 ARANTZA LORADENDA/ FLORES ARANTZA
 BATZOKI TABERNA
 GROUPAMA ASEGUROAK
 ABERIAK AKUARIODENDA



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO GELTOKIA 1962-2008

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Naturak lana behar du

Gorliz, 2008ko maiatza

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Plastiko lodi baten azpian ezkutatu dute uda urte osora hedatu dute tomatearen kultura ordularia ez da mugitzen irailetik abendura... negutegia bete da eta egutegia hustu da.

Denbora-tarte labur batean negutegian gordea tomateroak ematen ditu fruitua eta lorea. Eman ditzake sasoiakoaren forma eta kolorea baina kostata eman lezake sasoiakoen zaporea.

Arraintegiko arrainak eta negutegi bete piper belardietan egon ez diren hamaika txuleta eder plastikopeko lorategiak munduan bazterrik bazter Natura bera langabezian aurkituko dugu laster.

* Doinua: Nere gogoia hegan dijoa

barrika > udalak bat egin du Berdintasunerako Gutun Europarrarekin

Barrikako Udaletxea

Aho batez onartu du Barrikako Udalaren osoko bilkurak *Tokian Tokiko Bizitzan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Gutun Europarrera* batzea. 600 udal europarrek sinatu dute jada gutuna, horietatik 26 Euskal Herrikoak. Atxikimendu honekin hainbat ekintza jarriko ditu martxan Udalak. Genero politiken zeharkakotasuna areagotzea, udal bizitzan gizon eta emakumeen berdintasun arauak ezartzea, ekintza planak prestatu eta aplikatzea eta eskumen zerbitzuen barruan berdintasuna bultzatzea suposatuko du atxikimenduak, beste gauza askoren artean. Honez gain, emakumeen eskari eta beharizanak hobeto ordezkatzeko politikak sortzeko eta elkarten mugimendutik, Berdintasun Kontseiluetatik edo beste erakunde batzuetatik proposatzen den protagonismoa emateko konpromisoa hartu du Barrikako Udalak.

mankomunitatea > euskarazko udalekuak uztailean

Eskola egunak bukatzeko gutxi falta da. Eguzkiaren berotasuna eta argi ordu amaigabeak gure artean ditugu dagoeneko: uda heltzear dago! Urtero bezala, etxeko txikienek primeran pasa dezaten, udalekuak antolatu ditu Uribe Kostako Mankomunitateak. Aurten, Lemoiz, Gorliz eta Urdulizeko umeek izango dute udalekuetan parte hartzeko aukera. Lemoizkoak eta Urdulizkoak ekainaren 30etik uztailearen 24ra bitartean izango dira; Gorlizkoak, aldiz, uztailearen 1etik 24ra. Orduetgia bera izango da hiru herrietan: goizeko 10:20an hasi eta eguerdiko 13:30ean bukatuko dira. 3 eta 5 urte bitarteko umetxoek har dezakete parte. Izena emateko, udal bakoitzeko kultur etxeetara hurbildu behar da.

Informazio gehiago: 94 676 26 74



BASALBO BASERRIA JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

saiaz getaria
HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa





..harria
...lehengo garaiak...
...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

euskara > Aisa, Dendaketan eta Gehi kirolera ekimenak



Getxoko Euskara Zerbitzuak eta Bizarra Lepoan elkarteak Aisa, Dendaketan eta Gehi Kirolera ekimenak burutu dituzte 2007-2008 ikasturtean. Lehenengoa (Aisa), etorkinei bideratuta dago; izan ere, gureru hurbiltzen den lagun askok ez du euskal hizkuntza existitzen denik ere ezagutzen. Aisak euskara eta euskal kultura ezagutzeko aukera ematen die. Aurten 4 talde izan dira, baina martxan daraman hiru urteetan, 200 lagunetik gora pasa dira honetatik. Bestalde, merkataria eta tabernarientzat, Dendaketan ekimena jarri dute martxan. Honetan, bezeroak euskaraz atenditu ahal izateko oinarritzko ezagupenak lantzen dituzte. *“Entrenatzaileek asko egin dezakete euskararen alde”* ikastaroan, euskara indartzeko eta kirolariak euskaraz egitera bultzatzeko teknikak ikasi dituzte Getxoko kirol taldeetako 12 entrenatzailek. Euskara zerbitzutik, merkataria, tabernaria, entrenatzaileak zein etorkinak animatu nahi dituzte datorren ikasturterako. ○

Etorkinak eta kirol entrenatzaileak euskara ikasten.



“Zigiluak biltzea baino askoz gehiago da filatelia; ikerketa lana oso garrantzitsua da” dio Manuel de la Concepción

Manuel de la Concepción > Getxoko Filatelia Elkarte

Umetan, eskola garaian sortu zitzaion Manuel de la Concepcioneri zigiluak biltzeko grina. Garai hartan, “Don Pedro” postariaren atzetik ibiltzen ziren Manuel eta bere lagunak: *“Atzerriko eskutitzak heltzen zirenean zigiluak erakusteko eskatzen genion eta berak gustu handiz egin ere. Batzuetan, eskutitzen jasotzaileei zigiluak emateko eskatu eta oparitzen zizkigun”*. Kristalezko ontziak eta latak bildu, hauek saldu eta, lortutako diruarekin, zigilu-markak erosten zituzten. 1983an Getxoko Filatelia Elkarte sortu zuten afizio kide batzuen artean; aurten, 25. urteurrena ospatu dute. Baina zigiluz gain, beste hainbat bilduma bitxi ditu Manuelek: *“Emaztea eta iloba ere zaletuak dira eta euren bildumak dituzte. Nik antzinako zine-saioak, ardo eta likore botilen etiketak eta gazteluen argazkiak biltzen ditut”*. Internetekin gauzak erraztu badira ere, askotan zaila egiten zaio gura duena aurkitzea: *“Jendea zerbait eskatu eta bidaltzen didatenean asko eskertzen dut, aurrera egiteko gogoak ematen dizkit”*. Bere pieza kutunen artean, Antartidako sai basetatik bidali zizkioten zigilu-markak ditu: *“Inkomunikatuta zeudenez, sei hilabetez itxaron behar izan nuen”*. Zigiluak biltzea baino askoz gehiago da filatelia: *“Ikerketa lana oso garrantzitsua da; zure bilduma erakutsi ahal izateko gaiak kontrolatzen duzula ikusi behar dute epaileek”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan Reprografía

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
- ermarkaketak •



Iritzia emateko, hartu hitza

“Auzoz Auzo” ekimena martxan ipini du Udalak **auzotarren** kezak, jakinminak, **proposamenak edota beharrak** ezagutzeko asmoz, horiek **batzeko postontziak** ipini eta **batzarrak** egingo dituzte

Herritarren partaidetza bultzatzeko helburuagaz, Getxoko Udalak “Auzoz Auzo” ekimen berria ipini du martxan oraintsu. Horretarako, epe jakin batean herrian zehar barreiatuta egongo diren postontziak jarriko dituzte auzo bakoitzeko bizilagunek euren iritzia eman dezaten. Postontzietako idatziak batu ostean, udal arduradunak auzokideakaz batuko dira horien gainean jarduteko.

Getxoko auzo ezberdinetako bizilagunen ardurak, kezak, keak, proposamenak eta beharrak bertatik bertara ezagutu gura ditu Udalak eta hori erdiesteko “Getxo Auzoz Auzo” ekimena ipini berri martxan. “Udalerrri biziagoa, erosoagoa, gizatiarragoa eta solidarioagoa izan dadin; bertan bizi diren herritarrekin eraike nahi ditugu Getxoko auzoak”, adierazi zuen prentsurrekoan Getxoko alkate Imanol Landak.

Horretarako, auzotarren iritzia biltzeko postontzi berezi bat erabiliko dute. Lehenengo, informazio-orriak banatuko dituzte auzo bakoitzean ekimenaren berri emateko eta bertan “Zerk uste duzu hobetuko lukeela zure auzoa? galderari erantzuteko tarte zabal bat egongo dela jakinarazi dute, hori bete eta gero orri hori izango da postontzi berezi horretara bota beharko dena. Iritzi-ontzi berezia aurreikusitako egutegi finko baten barruan auzo jakin batean ipiniko dute eta auzotarrek bertan utzitako iritzia eta proposamenak batu eta aztertu ostean, “Imanol Landa alkatea bera



Maiatzean zehar Salsidu etorbidean egon da postontzia

eta bere gobernu lantalde osoa” auzo horretara hurbilduko dira aurrez aurre auzokideak euren jakinminen gainean berba egiteko. UKko zenbaki hau inprentarako bidean zihuan bitartean, Zubietako eta Oicosa aldeko auzotarrek Salsidu Etorbidearen amaieran aurkitu ahal izango zuten pos-

«Zerk uste duzu hobetuko lukeela zure auzoa? galderari erantzuteko aukera izango dute auzotarrek»

tontzia eta udal agintariakaz egitekoa zen bilera hilaren 22rako iragarrita zegoen.

Uda baino lehenago postontzia Zubilleta, Aldapa eta Venancio inguruetakoa auzotarrei zuzenduta egongo da (ekainaren 2ra arte; batzarra ekainaren 5ean, 19:00etan,

Zubilleta ikastetxean). Bertatik Aiboa eta Neguri arloan, Acacias kaleraino eroango dute postontzia (ekainak 20-30; batzarra uztailaren 3an). Uda ostean postontziak auzoz auzoko ibilbidea jarraituko du.

Horrelako ekimenek ez gintuzkete harritu behar, ohikotasunez hartu beharko genituzke, baina hala gertatu ohi ez denez, “berritzailetzat” hartzen ditugu horrelako ekintzak. ○

Postontzia non

- **Ekainaren 2ra arte:** Zubilleta, Aldapa eta Venancio inguruetan. Batzarra: ekainak 5.
- **Ekainak 20-30:** Aiboan eta Negurin. Batzarra: uztailak 3.
- **Informazio gehiago:** www.getxo.net

Jaurlaritzaren “Gizonduz”

ekimenari atxikitzeke deia egin die Udalak gizonezkoiei



Berdintasunaren bidean gizonezkoek ere badute zereginik

Eusko Jaurlaritzak eta Emakundek sustatutako “Gizonduz” ekimenagaz bat egitera animatu gura ditu udalerriko gizonezkoak Getxoko Udalak. “Gizonduz” gizonei zuzendutako ekimena da eta sexuen berdintasunaren alde giza talde hori kontzientziatzea eta euren parte hartzea eta inplikazioa bultzatzea du helburu. Arduradunen ahotan ekimenaren gako nagusia hurrengo ideian datza: “berdintasunak pertsona hobeak egiten gaitu eta, ondorioz, gizonak gizondu; izan ere, emakumeen eta gizonen gaitasunen erabateko garapena ahalbidetu eta haien bizitzako aukerak zabaltzen ditu”.

Berdintasunaren aldeko gizonen jarrera aktiboa lortzeko asmoz, “Gizonduz” ekimenak hogeitak ekintza garatzea aurreikusten du. Ekimenaren alde garrantzitsuetako bat da familia-erantzukizunetan gizonen partaidetza

bultzatzea eta areagotzea; horren albotik sustatu gura ditu esaterako aitatasun baimenak, eszedentziak eta lanorduen eta jardueraren gutxitzea (senideak zaintzeko eta).

Horrez gainera, “Gizonduz”-ek generoen berdintasuna jorratzeko formakuntza ere eskainiko du; hala, antolatzen diren ikastaroetako eta masterretako parte hartzea handiagoa izatea espero dute.

Eguneroko egitekoek gainera, antolatzen diren ekimenetan eta ekintzetan parte hartzeaz gainera eta abar, Getxoko Udalak gizonezko getxoxtarrak “Gizonduz” ekimenagaz bat egitera eta euren atxikimendua ematera animatu gura ditu, eta hori mezu elektronikoz egin daiteke hurrengo helbidean:

Informazio gehiago:
www.berdingune.euskadi.net/u89-congizon/eu/contenidos/informacion/quees/eu_gizonduz/quees.html

ARRATE ILLAROK IRABAZI DU IPAR URIBEKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Hilaren 17an Andres Isasi Musika Eskolan egin zen Ipar Uribeko Bertsolari Txapelketaren finalean Arrate Illaro algortarra gailendu zen. Aurrez aurre izan zituen Olatz Ibarluzea (Mungia), Itsaso Paia (Algorta), Peru Vidal (Plentzia-Leioa), Miren Ibarluzea (Mungia) eta Jone Uria (Algorta). Sei bertsolari gazte horiek izan dira Ipar Uribeko txapelketan parte hartu duten 20 bertsolarietatik finalerainoko galbaheak pasatu dituztenak. Beste barik, bejon deizuela den-denei!

EUSKARA SUSTATZEKO LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA ZABALIK

Hilaren 30era arte egongo da zabalik eskola-orduz kanpoko jardueretan 2008-2009 ikasturterako euskara sustatzeko diru-laguntzak eskatzeko epea. Aurten Getxoko Udalak 25.000 euro banatuko ditu ikasketa ez-unibertsitarioak ematen dituzten ikastetxe, guraso elkarte, ikasle-talde etabarren artean. Eskaearak udaletxeko Erregistro Orokorrean eta Algorta, Erromo eta Andra Mariko Herritarren Arretarako bulegoetan aurkeztu ahal izango dira.

IKASTEKO GELAK UDALERRIAN

Ikasleek ekaineko azterketak presta ditzaten udal liburutegietan eta Santa Eugeniako zein Andra Mariko aretoetan 506 ikasteko leku egongo dira. Ikasteko gelak ekainaren 24ra arte erabili ahal izango dira. Aipatutako leku publikoek gainera, hurrengo lekuetan ere egongo da ikasteko aukera: Juan Bautista Zabala eta Erromo ikastetxeak, Julio Caro Baroja-Getxo I institutua (asteazkenean zehar 17:00-22:00), eta Fadura Getxo Kirolakeko kideentzat (aste osoan zehar 08:00-21:30).

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illaeta kalea 1 • ALGORTA



Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Nerea Sainz de Murieta > Epaitegiko euskara sustatzeko taldeko kidea

“Helburua da epaitegian euskara erabiltzea, langileen artean zein herritarrenganako tratuan”



Nerea taldekideekin epaitegi aurrean

Epaitegian lan egiten du Nerea Sainz de Murietak. Bertan euskara sustatzeko asmoz, euskara erabilera taldea sortu dute. Eusko Jaurlaritzako Justizia Saitetik abiatutako egitasmoa da eta epaitegietan euskararen erabilera suspertzea du helburu. Hasi berriak badira ere, helburuak finkatu dituzte eta ekimenak abiatzeko gertu daude.

—Zer da, zehazki, euskara sustatzeko taldea edo batzordea?

—Administrazioa, orain arte, osasungintzan edota udaletan euskalduntze planetan-eta nahiko aurreratuta egon bada ere, justizian nahiko utzita egon da. Orain urte batzuk esperientzia piloto batzuk garatzen hasi ziren funtzionarioekin lan egiteko, mintza-saioak egin ziren... Eta orain, plan bat egin da justizian euskara sustatzeko. Epaitegi bakoitzean trebatzaile bat dago eta haren lana da, alde batetik, langileekin lan egitea mintza-saioetan eta trebakuntza saioetan eta, beste alde batetik, euskara plana garatzea. Horretarako bitarteko bat dira erabilera taldeak edo euskara batzordeak; hots, guk geuk osatzen duguna. Bizkaian sei barruti daude justizian:

Getxon, Gernikan, Bilbon, Barakaldon, Durangon eta Balmasedan daude epaitegiak. Guztietan sortu dira erabilera taldeak.

—Getxon orain gutxi sortu duzue?

—Bai, hilean behin biltzen gara eta oraintsu finkatu ditugu helburuak. Hasieran euskararen egoeraren diagnostika burutu genuen, sus-tapenerako planaren barruan. Hainbat ondorio atera genituen diagnosi hartatik eta horien arabera helburuak zehaztu ditugu.

—Zeintzuk dira helburu horiek?

—Beno, helburu nagusia euskararen erabilera eta presentzia handitzea da, noski. Bai langileen artean, bai herritarrenganako tratuan. Helburu horrek beste helburu guztiak biltzen ditu, baita gure taldearen egitekoa ere. Izan ere, epaitegiak oso leku erdaldunak dira.

Herritarren bat bertaratzen denean, joera beti da gaztelerara jotzea, bertako langilea euskalduna izan arren. Herritarrak ez daki hori eta ezin du imajinatu euskaraz egin dezakeen hainbat langilerekin.

—Eta helburu hori lortzeko, zein ekimen gauzatuko duzue?

—Jadanik euskararen txokoa prestatu dugu. Bertan ohol bat jarriko dugu taldeari edo batzordeari eta euskarari buruzko informazioa eskaintzeko. Gainera, euskarazko aldizkariak eta egunkariak ere jarriko ditugu langile ororen eskura. Bestalde, epaitegiko kartelak aldatu nahi ditugu, elebidunak jartzeko. Era berean, langileen artean euskaraz egi-

«Oraingoz oso zaila izango da Getxon epaiketak euskaraz egitea»

tea bultzatu nahi dugu. Ez dugu horretarako ohitura handirik ere eta suspertu beharko dugu. Herritarrei begira ere, harrera euskaraz egiteko aukera bideratuko dugu. Hau da, lehen hitza euskaraz izan dadila. Horrela, euskaldunek aukera izango dute eginbeharrak euskaraz egiteko.

—Nolako harrera izan du epaitegian?

—Gehienek ez dakite existitzen denik ere. Besteen artean, batzuek begi onez ikusten dute eta beste batzuentzako denbora galtzea da. Beste barruti batzuetan, berriz, trabak dituzte, Barakaldon adibidez. Trebatzailea diagnostika osatzeko inkesta egitera joan eta idazkariak lan hori egitea debekatzea gertatu zaie. Bilbon ere izan dute arazoren bat. Baina beno, Getxon ez dugu arazorik izan.

—Eta epaiketak euskaraz, noizko?

—Hori askoz zailagoa da, horretarako denek izan behar baitute euskaldunak, abokatua, fiskala, idazkaria eta epailea. Getxon, oraingoz, oso zaila izango da hori lortzea. ○

Mugagabe zirkuitua

Getxoko Antzerki Eskolak antolatutako ekimenaz gozatu ahalko da eskualdeko herrietan



Mugagabe zirkuituko ikuskizunetako baten irudia

Getxoko Antzerki Eskolak eta Simulacro Teatrok bigarren urtez antolatu dute Mugagabe zirkuitua. Aldundiaren laguntza duen ekimenak hurrengo helburua dauka: Bizkaiko antzerki taldeen lana hedatzea, baina zirkuitu paritarioa da eta hala, emakume sortzaile, antzerkigile eta antzezleen lana zabaltzearen alde lan egiteko asmoz jaio zen. Horrez gainera, antzerkiaren gain, askotariko arte disziplinak hartzen ditu bere baitan, barbarako: pintura, dantza, bideo-sormenak etab.

Aurreko urteko arrakasta dela eta, aurten zirkuitua zabaldu dute, hala udalerrri gehiagotan gozatu ahal izango da Mugagaberen antzerki eskaintzaz, adb.: Ondarroa, Galdakao,

Getxo, Erandio, Urduliz, Bilbo, Arrigorriaga edota Muskizen. Apirilean ekin zion egitarauri Mugagabe ekimenak eta urte amaieran jaitziko du oihala. Dagoeneko, Getxo Antzokian, Josu Muruetan eta Altagako Merkatuan (Erandio) eta Urdulizen ikusi ahal izan dira ekimema osatzen duten 6 antzerki taldeen (Oh my God, La Ressistence, Teatro Mutante, Ekoma Teatro, Vuela Bonita Korporation eta Maskarada) ikuskizunetako batzuk, halere, hemendik aurrera horretarako aukera gehiago ere izango dira, esaterako: Urdulizko kultur etxean ekainaren 7an, edota Josu Muruetan urriaren 25ean eta azaroaren 29an. ○

Informazio gehiago: www.mugagabe.com

ANTZERKIAREN ALDE LANEAN ITZUBALTZETA GAZTETXEA

Erromo/Itzubaltzetako gaztetxeak antzerki ikuskizun bat antolatu ohi du hilean behin, Itzubaltzetako arduradunek jakinarazi dutenez; eta “ikusleen harrera bikainari esker, maiztasun hori bikoiztea deliberatu dute”, hau da, esaterako hil honetan bi antzerki lan eskainiko dituzte. Lanetako bat aurreko astean izan zen eta hurrengo zita hilaren 30ean ipini dute (21:00). Antzerkiola-tik jaiotako Zetazeak konpainiak izen bereko lana antzetzuko du (sarrera: 2 euro). Horrez gainera, datorren hilerako ere hitzordua ipini dute, ekainaren 20an izango da eta La Calvario taldeak *Ariketa 5* dantza eta antzerki ikuskizuna eskainiko du (21:00; sarrera: 2 euro).

Informazio gehiago:

www.blogari.net/itzubaltzeta.com

ESKULANGINTZA AZOKA HIL AMAIERAN

Zilarrezko ezteiak beteko ditu aurten Eskulagintza Azokak. Hiru egunetan zehar (maiatzak 30 eta 31 eta ekainak 1) ehundik gora artisauk eta eskulangilek euren lana zein egiteko moduak erakutsiko dituzte eta euren ekizpenak salgai ipiniko dituzte Areetako Geltoki plazan. Horrez gainera, Ibaiondo kalean gastronomia gunea egongo da eta arlo horretako 15 bat artisauk gozogintza, okintza, gozo, esneki eta abarrek produktuak ipiniko dituzte dastagai eta salgai. Azoka hurrengo ordutegian egongo da zabalik 11:00-14:30 eta 17:00-21:00 eta sarrera doakoa da.

ESKOLA ANTZERKI JARDUNALDIAK GETXO ANTZOKIAN

Hilaren azken egunean (17:00etatik aurrera) eta ekaineko lehenengoan (11:30-14:00 eta 17:00-19:30) Getxoko eskola, DBHko zentruetako eta ikastoletako ikasleek urtean zehar GUABE elkartearen antzerki lantegietan ikasitako lanak taula gainean ikusteko aukera egongo da. Sarrera doan.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Jon Goldaraz > Lamiako Maskaradako antolatzailea

“Kristautasunaren ohitura ez da dugun bakarra; gure kulturen bagenituen beste batzuk”

Maiatzeko azken barikuan, ohiturak agintzen duenez, Marik, Akerrek, Ingumak eta beste hainbat pertsonaia mitologikok Lamiakoko kaleak hartuko dituzte. Jon Goldaraz antolatzaileak aurreratu digunez, aurten berrikuntzak izango dira maskaradan. Hitzordua, maiatzaren 30ean.



Pasa den urteko Maskaradako argazki bat

Urtero legez, euskal pertsonaia mitologikoak Lamiakoko kaleetara irtengo dira herria alaitzeko asmoz. Aurten gainera, Jon Goldarazek esan digunez, berrikuntzak ere izango ditu maskaradak: “antzina maskaradak bost atal zituen, betiko hirunak eta beste bi. Eguerdiko hamabietan pertsonaia bat atabal eta txistu batez joaten zen Lamiako auzotik zehar maskarada inagarriz. Eta bigarren atal berria litza-teke gauean aspaldian egiten zen herri afaria. Baina, momentuz, lehenengo eranskina da guk berreskuratu duguna.” Hala ere, beste atal bat berreskuratu dute: “arratsaldean astoa edo idi batzuk izango ditugu gurdia errotan”.

Lamiakoko Maskaradak Euskal Herriko mitologiaren antzezpena egiten du. Alde bate-tik, jentilen mitologiaren eta inposatutako kristautasunaren arteko borroka, eta bestetik, auzoari izena ematen dion Lamiaren istorioa uztartzen ditu.

Lamiaren kondairak esaten duenez, Berriz mendian Prudentzia deituriko andra bizi zen. Martinegaz ezkondu zen eta haurdu zegoela, alargun gelditu zen. Ondorioz, Prudentziak berak aurrera atera behar izan zuen bere seme Inazio. Honek baserriaren jabea izateko eda-dea eskuratu zuenean, dena saldu eta itsorantz abiatu zen marinel. Prudentzia, orduan, triste eta goibel gelditu zen eta beti zegoen Abrara begira, bere semea noiz bueltatuko zain. Horrelako egun batean, Prudentzia oso zaharra zelarik, semearen itsasontzia zetorrela ikusi zuen eta korrika jaitsi zen ibaira. Hara

heldutakoan hura bere semearen itsasontzia ez zela ohartu eta etxerako bueltan tristuraz hil zen Ondizko paduretan. Inguru horretako lamiak Prudentziak errukitu ziren eta lamia bihurtu zuten. Hortxe dugu Lamiako izenaren jatorria. “Istoria tristea dugu, baina hala ere, ikus dezakegunez, guk ez ditugu bakarrik kristautasunaren ohiturak, zeinetan hildakoa zeruru doan. Bazeuden gure euskal kulturen elkartasun-ohitura batzuk: lamiak eurretako bat bihurtu zuten Prudentzia bere sufrimendua gutxitzeko asmoz eta beti itsasotik hurbil bizitzeko semea ikusteko esperantzazagaz”. ○

Garapenerako lankidetzak

Leioako udalak **233.000 euro banatuko** ditu garapenerako lankidetzak egitasmoetarako



Leioako Sahararen aldeko taldea

Leioako Udalak 233.000 euro banatuko ditu aurten garapenerako lankidetzak egitasmoaren baitan. Tokiko erakundeak zehaztu duenez, “laguntza hauek jaso ahal izateko erakundeek hainbat baldintza bete behar dituzte, esaterako, egoitza soziala Bizkaian izatea eta Leioan bazkideak edukitzea. Bestetik, elkarteak eta erakundeak irabazi asmo gabekoak izan behar dira eta Hirugarren Munduko garapenerako lanak egin behar izango dituzte”.

Laguntza eskuratu gura duten elkarteek maiatzaren 20ra arte dute izena emateko aukera. Urtero legez, hainbat diru partida ezberdin izango dira: Dominikar Errepublikan eta Saharan lan egiten duten elkarteak 62.000 euroko dirulaguntza emango diete; gainontzeko herrietan behar egiten

duten taldeentzat 103.000 euro; eta azkenik, “sentsibilizazio eta kontzientziazio” egitasmoentzat 6.000 euro.

Diru laguntza eskuratu ahal izateko interesdunek euren eskaerak bete beharko dituzte Udal Erregistro Orokorrean. Eskakizun horretan agertzen den moduan, hainbat bete-behar dituzte elkarteek: alde batetik, gutxienez urtebete lehenago legez eratu egon behar dute. Bestalde, garapen soziala eta ekonomikoa hobetzeko asmoz, herrialde azpigaratu horien aldeko lana egitea izango da erakundearen helburu bakarra eta arlo horretan esperientziadunak direla frogatu beharko dute. Horrez gain, iaz laguntza horietako bat jaso zutenek dirua zertan gastatu duten jakinarazi eta frogatu beharko dute. ○

ALOKAIRUZKO LEHENENGO ETXEBIZITZA SOZIALAK UDARAKO

Alokairuzko lehenengo etxebizitza sozialak udan emango dizkiete etxearrei. Guztira 58 etxebizitza dira eta horietako 20 Lamiako auzoa eraberritzeko desjabetzea pairatu duten familientzat erreserbatuta daude. Gainontzeko 38ak uda partean zozkatu eta hortik gutxira entregatuko dira. Zozketan parte hartzeko, gutxienez duela urtebete Leioan eroldaturik egon behar da eskatzailea. Gainera, pasa den urteko azarotik Etxebiden izan behar du izena emanda eta 2006. urtean 3.000 eta 21.000 euro bitarteko irabaziak eduki izana bete behar du.

HAUR ESKOLA DATORREN URTERAKO

Datorren ikasturtean Leioako Haur Eskola irekiko dute Artaza Eskolan. Eskaintza 0 eta 2 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Leioako alkate Eneko Arruebarrenak adierazi duenez, gutxienez 37 plaza edukiko ditu Haur Eskolak. Horretarako, Artaza Eskola egokitu beharko dute.

IÑAKI RODRIGOK EGIN DU JAIETAKO KARTELA

Iñaki Rodrigo getxoxtarrak egin du aurtengo Leioako San Juanetako kartela. Antolatutako lehiaketa batean *Bolitas* izenburuko kartela aukeratu dute beste 42 lanen artean. Hori dela eta, Rodrigok 800 euroko saria jasoko du. Epaimahaiak aipamen berezia egin dio Markel Matos txikiaren lanari, aurkeztu den ume bakarra delako eta bost finalisten artean lotu zelako. Bestalde, Margolari Gazteen XI.edizioa egin berri dute. Lehen saria Shakti Olaizola leioaztarrarentzat izan zen, bigarrena ere Leioan geratu zen, Raquel Felezek irabazi baitzuen. Azkenik, hirugarrena, Gasteizko Eduardo Alsasua hartu zuen.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artaza Auzoa 84, LEIOA • Tif: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Ainhoa Moso > "Lutxana Existe" elkarteko idazkaria

"Aurtengo udal-aurrekontuan ez dago Lutxanari zuzendutako partidarik"

Sei urte daramatza Lutxana Existe elkarteak Erandioko auzoak dituen beharrak salatzen. Elkartearen ustez, udalak ahaztuta daukan auzoa da Lutxana. Auzotarren elkarte honen eskaerak zeintzuk diren jakiteko Ainhoa Mosogaz berbetan ibili gara.

—Zer beharrian antzematen duzue daukala Lutxanak?

—Asua eta ibaiko errepidea lotzen dituen bidegurutze arriskutsuari konponbidea ematea da momentu honetan gure eskakizun nagusia. Bidegurutze horretatik jende andana pasatu behar da, ez soilik auzotarrak, langileak ere hortik igaro behar dira eta oso arriskutsua da, lau errail gurutzatzeak arrisku handia dakarrelako. Bidegurutzeaz aparte, Lutxanak baditu beharrian gehiago: metro geltokiko atzealdean, adibidez, "goma" deritzogun landa oso egoera txarrean dago. Printzipioz, bertan parke bat egingo dute eta proiektua onartua dago jada, baina oraindik ez dute ezer egin. Hor ondoan ere "el quesito" deitzen diogun lantegi ohia dugu, zeinean obra-hondakin ugari dagoen; bestalde, pintura lantegi zaharrean material sukoiak jarraitzen du egoten eta oso arriskutsua da hori: material horiek jariatzen duten kiratsaz aparte, umeak ere bertan sartzen dira.



Elkarteko kide batzuk

—Zein izango litzateke aipatutako bidegurutze horretarako irtenbidea?

—Lurpeko pasabidea edo gaineko pasabidea, hau da, 4 errail horiek oinez igarotzea saihestuko lukeen zerbait. Eta hori egin arte, gutxienez semaforo eta zebra-bide bana litzateke egokiena.

—Eta agintarien jarrera zein da?

—Hasiera batean, errepide hori Portu Autonomoarena zela esan ziguten. Orain, bidegurutzearen kompetentzia Bizkaiko Diputazioarena dela, hau da, ardura batak bes-

teari botatzen diote. Alkateagaz bildu gara zenbait alditan eta honek esan digu Diputazioak bidegurutzea konpondu arte berak behin-behineko konponbide bat emango ziola (semaforoa eta zebra-bidea jartzea), baina egia esan, oraindik ez dute ezer egin bertan. Diputazioak ere bere gain hartu zuen bidegurutzea konpontzeko konpromisoa, baina zain gaude oraindik. Hitz politik guztiek esaten dituzte, baina irtenbideak eman inork ere ez. Esanguratsua da aurtengo udal aurrekontutik Lutxanari zuzendutako partidarik ez egotea. ○

Euskarazko antzerkia

Maiatzaren 29an **Gronholm Metodoa** ikusteko aukera egongo da Alzagako merkatu zaharrean



Antzezlaneko une bat

Maiatzaren 29an Gronholm Metodoa antzezlan ikusteko aukera izango dute erandioztarrek. Antzerkia arratsaldeko zortzietan hasiko da Alzagako merkatu zaharrean.

Aipaturiko antzezlan multinazional batean oinarritzen da, zeinean exekutiboplaza bat betetzeko azken lau hautagaiak gela batean bildu dituzten, hautaketa-prozesuaren azken probak egin ditzaten.

Lehen ikusian kosta egiten da sinistea lanpostuari berari dagozkion probak direnik, hain dira absurduak denak. Pertsonaiak jolasean dabilta, eta publikoa ere bai haiekin batera, egia eta gezurra bereizteko

ahalegin antzuan. Hautagaiak gainditu behar dituzten proba guztiak, gezurra dirudien arren, langileak aukeratzeko teknika errealean oinarrituak dira eta adituak idatzitako liburu burutsuetatik aterata daude. Obra honek probak muturrera eraman ahala, agerian uzten dute bere baitan duten komikotasuna.

Jordi Galceranek asmatutako antzezlan hau Karlos Zabalak zuzentzen du. Alabaina, aipatu beharra dago bertan ospe handiko aktoreak aurki ditzakegula: Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ramon Agirre eta Itziar Ituño. ○

ERANDIOK BOST PARKING GEHIAGO EDUKIKO DITU

Erandiok bost parking gehiago edukiko ditu aparkalekuen gabeziari aurre egiteko. Alabaina, telefonoz egindako inkesta batek zehaztuko du eraiki beharreko aparkalekuen kopurua. Parkingak Astrabudua eta Alzagaren eraikiko dira: Astrabuduan hiru parking (Iturrimingo kalean, Mezo kalean eta metro geltoki ondoan) eta Alzagaren beste bi (polikiroldegaren ondoan eta merkatuan). Parking berriak eraiki bitartean, Udalak behin-behineko beste batzuk jarri gura ditu eta horretarako lurjabeekaz kontaktuan jarri da. Momentuz, Astrabuduako metro-geltoki ondoan dagoen parkinga ireki dute berriro, hainbat hilabetetan itxita egon ostean.

MUSIKA ESKOLAKO ORKESTRA BERRIAREN AURKEZPENA

Hemendik aurrera Erandioko Udala Musika Eskolak eskolatik kanpo errepresentatzeko Orkestra berria edukiko du eta Fuensanta Figuerola zuzendari ospetsuak zuzenduko du orkestra. Momentuz, 20-25 ikasle gaz hasiko da, nahiz eta kopuru hori handituz joan espero duten. Aldi berean, orkestrako ikasleek Musika Eskolako beste talde batzuetan parte hartzen dute: haizezko taldean, harizko orkestran eta akordeoi orkestran, besteak beste. Apirillean entsaiatzen hasi ziren arren, zuzendaria pozik dago lortutako emaitzagaz. Ekainaren 19an aurkeztuko dute orkestra: arratsaldeko zazpitan Astrabuduako Areto Nagusian kontzertua eskainiko dute.

PERUREN ALDEKO FESTA OSPATU ZUTEN

Maiatzaren 10ean eta 11n Gurari Aisialdi Kultur Taldeak Perú herriarekiko elkartasun jaia ospatu zuen Erandio Goikoan. Lortutako etekinak hango haurrentzat izango dira.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

VIRGINIA BERASATEGI ETA LAURENT GALINIER VI. DUATLOIKO TXAPELDUNAK

Maiatzaren 11n Sopelako VI. Duatloia burutu zuten. Emakumeen mailan Virginia Berasategi irabazi zuen eta gizonezkoen mailan Laurent Galinier atera zen txapeldun. Herriko Duatleta Onenaren Saria, berriz, Hirubi Triatloi Elkarteko Ekain Araizek irabazi zuen. Guztira, 280 bat lagunek parte hartu zuten aurtengo Duatloian. Urtero legez, 5,2 kilometro korrika egin zituzten kirolariek eta horren ostean, 24,4 kilometro egin zituzten bizikletaz (Sopela, Urduliz, Laukiz, Gatika eta berriro Sopelara). Azkenik, parte hartzaileek beste 2,6 kilometro korrika egin behar zituzten.

DINAMIK(TT)AK, SORMENARI BURUZKO AUZOLANDEGIA

Sopelako Gazte Bulegoak *Dinamik(tt)ak* ekimena abian jarri du. Sormenari buruzko auzolandegia da *Dinamik(tt)ak*. Sormenaren inguruko ikasketak (moda, arte ederrak, arkitektura, diseinua, publizitatea, komunikazioa, zinea...) egin gura dituzten batxilergoko azken urteko ikasleei eta maila erdiko zikloko ikasleei zuzendua dago. Ekimenaren xedea da irudikapen plastiko bideratzeko teknikez haratago, sormen-prozesuak errealitatean eta gizartearen eragiteko tresna gisa ulertzea eta lantzea. Beraz, 17 eta 19 urte bitartekoei zuzendutako ekimena da eta parte hartu gura duenak Euskal Autonomia Erkidegoan ikasi behar du halaberharrez. Erakusketa uztailaren 14tik 25era egingo da.

Izena emateko: sopelanagaztea.blogspot.com/

HOBEKUNTZA LANAK BALEA ENPARANTZAN

Balea Plazako kulunketan konponketa lanak egin zituzten maiatzaren 12tik 15era, haurrek jolas dezaten.

Artisautza Azoka
Jendetsua izan da aurten Sopelan egindako VIII. Artisautza Azoka



Artisauen etxolatxoak

Maiatzaren 5ean ospatu zuten Larrabasterrako Urgitxieta plazan Sopelako VIII. Artisautza Azoka. Egun osoan zehar, 11:00etan hasita 20:00ak arte, jendea etengabe hurbildu zen 40 saltokietara erosketak egiteko prest. Bertan, larruzko produktuak, bitxiak, lore lehorrak, arropa, kosmetika, oihal pinturak, jostailuak, zilargintza edota zeramika aurki gertatzen.

"Bero bizia egin arren, auzoko zein inguruko lagunen bisita izan zuen feriak", adierazi du Udalak. Eskuz egindako produktuez gain, bestelako jarduerak ere bildu ziren: besteak beste, Katu Buru perkusio taldeak kale-

ak girotu zituen eta Simulacro konpainiak *Con las manos en el arte* kale-antzerkia eskaini zuen. Ekintza hauetan guztietan parte hartze bizia izan zen.

Erakusleen ustetan, "goizeko lehen orduetan giroa lasaiagoa izan zen beroagatik, baina egunak aurrera egin abala, parte hartzea handitu zen". Gaueko zortzietan Oskorri Banda Bandek kontzertua eskaini zuen Urko kiroldegian. Proiektu honetan taldearen 35 urteetako errepertoriaren errepaso historikoa egingen ari dira. Oraingoan, Uribe Bazterra Bandarekin jo zuen eta 400 lagun inguru hurbildu ziren kontzertua ikusteko. o

G. Tetua, B. Saitua, A. Onaindia > Gazte Asanbladakoak

"Egoera larria da, sozializazio guneak desagertzen ari direlako"



Gorka Tetua, Betitse Saitua eta Asier Onaindia

Duela lau hilabete eraberritu zen Sopelako Gazte Asanblada. Hasierako talde txikia handituz doa. Orain, Loroñoan 350 bat txalet eraikitzeo egitasmoaren salaketan dago murgildurik. Eguenetan 20:00etan batzen dira Larrabasterran.

—Denbora gixi darama Sopelako Gazte Asanblada berriak...

—Berez, hiru urte daramatza Gazte Asanbladak: Urdulizko bi gaztetxeak okupatu genituen eta azkenengotik, Ganearri gaztetxetik bota gintuztenean, indarra galdu zuen. Duela lau bat hilabete hasi ginen berriro batzen. Hasieran talde txikitxo osatzen genuen, baina gero jendea hurbiltzen joan da.

—Sopelako Gazte Asanbladaren jarduerak nagusia zein da momentu honetan?

—Gehienbat Asu eta Bareino tartean dagoen txaletez beteriko urbanizazio-proiektua salatzeari oinarritzen da geure borroka gaur egun. Proiektua Lurraldeko Zati-Planaren barnean kokatu behar dugu. Nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa izan, ondoren gure udalek onartzen eta bultzatzen dute luxuzko etxebizitzak eraikitzen. Horrek gainera, ez die benetako beharrei erantzuten, kanpotar dirudunentzat baita. Era berean, horrek kostalde-

ko txikizioa dakar. Baina herriko bertako beste gauza batzuetan ere badihardugu: batez ere, etxebizitza hutsen inguruan. Sopelan 438 etxe huts daude eta badaude beste 600 udako etxeak direnak. Beraz, egoera oso larria da. Udalak berak etxe huts hauen alokairu merkea bultzatu behar du. Honegatz batera, herriaren eredia aldatzen ari dira: sozializazio guneak desagertzen doaz, jendea herrikanpora doa erostera, komertzio txikiak beharantz doaz, kultur etxe berri herrikan nahiko urrun eraiki dute... Gauza bat hemen dago, bestea han... eta ondorioz autoa hartzera

«Luxuzko etxebizitzak eraikitzeak ez ditu herriko beharrianak asetzen»

behartuta zaude, eta horrek ere errepide gehiago egitea dakar. Gazteen sozializazioari dagokigunez, gaztetxearen falta dugu: ez dugu geure artean bildu eta ezagutzeko tokirik. Hori dela eta, Gaztetxe Proiektua aurkeztu genuen. Udalarari ere eman genion, bazeudelako alderdi indartsuak guri babes ematen zigutenak. Baina azkenean ez zen aurrera atera: EAJK eta EAK paso egin zuten eta EBK ondo zeritzon proiektuari, baina beste lehen-tasun batzuk zituela adierazi zuten. o

LAIKAK Taberna
Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!
Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

DIDAK HAMILTON
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak

RIPOLIN
BONDÉX
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

EZKER BATUAK TELEFONIKA SALATU DU

Koldo Martinez Ezker Batuko zinegotziak bere eraikinean jarri duten tramankuluaren gaineko azalpenak eskatu dizkio Telefonikari. Izan ere, Martinezek deklaraturakoaren arabera, udalaren baimena ez daukan gailu bat instalatu zuten maiatzaren 3an, sakelako telefonoetarako antena bat izan daitekeena. Konpainiari azalpen publiko urgentek ematea eskatu dio eta Berangoko Udalarai neurri administratiboak hartu eta beharrezkoa izatekotan, isunak jar ditzala.

EKAIN HASIERAKO KULTUR EKINTZAK

Aurreko alean aurreratu genizuen bezala, maiatza eta ekainean zehar X. Kultura Jardunaldiak ospatzen ari dira Kultur Etxearen laguntzarekin. Ekainaren 5ean eta 12an bihotz eta arnas gaixotasunei eta loaren desorekei eta azalaren gaixotasunei buruzko hitzaldiak izango dira Berangoetan. Honez gain, Bilboko Emays eta Mikel Deuna eta Erandioko Mendibaiarte abesbatzen emanaldia izango da hilaren 6an, arratsaldeko 8etan, elizan. Ekainaren 7an litetarura antologia egingo dute arratsaldeko 7etan, ACADAE taldearen eskutik.

SIMON OTXANDATEGI DANTZA TALDEA GALIZIA ETA POLONIARA DOA

Hil amaieran Santiagora (Galizia) doaz Berangoko dantza taldekoak eta ekainaren 12tik 16ra Wroclaw herrian (Polonia) ibiliko dira dantzan. Ohiko euskal dantza erakustaldiaz gainera, Otxotea, zanpartzarrak eta txistu, dultzaina, trikitixa eta txalaparta entzunaldiak ere eskainiko dituzte Otxandategiok aipatutako lekuetan. Horrez gainera, herri-kirolen erakustaldia egingo duen taldea ere eurek doala jakinarazi dute. Iaz Sevilla, Bartzelona eta Frankfurt ibili ziren, aurten Galizia eta Poloninaren txanda da.

Gazteen parte hartzea

bultzatzeko **bloga martxan** ipini du Udalak, Plan Estrategikorako ideiak biltzeko asmoz



Blog horretan informazioa lor dezakezu, baita zure iritzia eman ere

Berangoko Udalak blog berria jarri du martxan, herriko gazteek Gazte Plan Estrategikoa egituratzeko erabilgarriak izan daitezkeen ideiak eman ditzaten. 15 eta 29 urte bitarteko gazteentzako ekintzak eta neurriak zehaztu nahi dituzte planarekin. Hezkuntza, enplegua eta enplegurako prestakuntza, etxebizitza, osasuna eta gizarte ekintza, aisia eta gazte kultura gaiak landuko dituzte. Planaren lehenengo urratsak emateko, *“berangozko gazte-diaren argazki ahalik eta errealea”* lortu gura du Udalak. Honetarako, hain zuzen ere, jarri dute martxan bloga.

Joan den maiatzaren 9an jai berezia ospatu zuten frontoian, Gazte Planari hasiera emateko. Honetan, Afrikako musikaren erritmorik dantzatu eta DJ ikuskizunaz gozatzaz gain, herriko gazteen arazo eta kezkek plazaratzeko izengabeko test laburra erantzuteko aukera izan zuten bertaratutakoek.

Maria Isabel Landa alkateak Gazte Planak *“aurrerapauso handia suposatuko duela”* adierazi du eta proiektu horrekin ilusio handia daukatela aitortu du: *“Espero dut zuretzat ere baliagarria izan dadin eta zure laguntzarekin aurrera atera dezagun”*.

Informazioa: www.berangokogazteak.com

Estibalitz Anitua /Naiara Gaya > *Uribe Kostaren etorkizuna*

“Herri-plangintzak egiterakoan ez da emakumeon iritzia kontuan hartzen”



Berdintasun teknikari Estibalitz Anitua eta Tokiko Agenda 21eko arduradun Naiara Gaya

Maiatzaren 16an Uribe Kostaren Etorkizuna: berdintasun eta inakortasunerako lurraldea eztabaida-tailerren balantzea aurkeztu zuten Urdulizen Emakundek bultzatutako Naro (Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako Gunea) programaren barruan. Estibalitz Anitua berdintasun teknikari eta Naiara Gaya Tokiko Agenda 21eko arduradunak egindakoaren berri eman digute.

—**Nolakoak izan ziren tailerrak?**
—Emakumeek zelako Uribe Kosta nahi duten jakiteko helburuarekin antolatutako genituen tailerrak. Parte hartzea handia izan zen, giro polita sortu genuen eta ekarpen interesgarriak egon ziren. Hurbildutako emakumeek ez zuten aurkitu zuten espero. Ondoren, tailerretatik ateratako ondorioak mankomunitateko udaletako politikari eta teknikari aurkeztu genizkien. Zoritxarrez, azken hauen parte hartzea ez zen espero genuena izan.

—**Zeintzuk izan dira ondorio nagusiak?**
—Mugikortasunaren gaia izan zen gehien agertu zena. Barrika edo Lemoizko biztanleek, adibidez, kotxea behar dute mugitzeko eta, gainontzeko herrietan, zaila da batetik bestera oinez joatea. Herrien artean komunikazio falta dago. Hau dela eta, genero ikuspegia txertatuko duen mugikortasun plana jarri dugu martxan. Herriei bizitasuna emateko beharra ere aipatu zuten.

«Genero ikuspegia txertatuko duen mugikortasun plana jarri dugu martxan»

—**Zein da eskualdean, berdintasunari dagokionez, dagoen oztopo nagusia?**
—Herrietako plangintzak egiterako orduan ez da emakumeon iritzia kontuan hartzen. Konpromiso politikoa falta da; ez dute ulertzen genero ikuspegia txertatzea zer den eta ez dute esfortzurik egiten. ○

AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTEA

URDULIZ

Teléfono: 946 701 120

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

VIEJO CAFE

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

URDULIZKO KARTEL LEHIAKETA MARTXAN

Urtero bezala, Andra Mari Jaiak iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketa martxan jarri du Urdulizko Kultur Etxeak. Gura duten guztiek har dezakete parte eta lan kopurua eta kartelen gaia librea izango da. "Urdulizko jaiak Andra Mari 2008" testua eraman beharko dute kartelek eta 40x60 zentimetroko neurrian eta euskari gogorren entregatu beharko dira. Lanak korreoz edo zuzenean bidali behar dira Urdulizko Kultur Etxera, Aita Gotzon 16 helbidera. Epea ekainaren 14a arte egongo da zabalik; irabazleak 400 euro jasoko ditu.

PIRAGUA IKASTAROA BARRIKAN

Barrikako Piragua Taldeak hiru hastapen ikastaro ezberdin antolatu ditu: "Lehen kontaktua", "Oinarrizko hastapenerako ikastaroa" eta "Hastapenerako ikastaro aurreratuak". Prezioa 8, 20 eta 55 eurokoa izango da hurrenez hurren eta taldeak eta ordutegiak izena ematen duen jendearen arabera finkatuko da. Euren jarriko dituzte beharrezkoa den materiala eta osasun instalazioak.

Informazio gehiago: 675 062 726

ANTXUMEAK SALGAI

Alaitz Ortuondo gorliztarraren ahuntzama hainbat antxumez erditu berri da. Oso egoera onean dauden arren, ezin du guztien kargu egin eta, horregatik, salgai jarri ditu. Gura duenak 690 13 90 35 telefonora deitzea besterik ez du.

PLENTZIA

1.508ko ordenantzak biltzen dituen liburua salgai



Liburua Plentzia Butro museoan eros daitezke 10 euroan

Plentziako Udal ordenantzen V. urteurrena dela eta, jatorrizko gaztelaraz idatzitako idazki hauek biltzen dituen liburua kaleratu du Plentzia Butro museoak. Martin Perez de Arteta 1508. urteko Plentziako alkateak eta bere gobernu taldeak idatzi zituzten ordenantzak, Martin Perez de Arostegik, garaiko alkatearen eskribauak, eskatuta.

Jatorrizko bertsoak Bilboko Agiritegian daude eta Eusko Ikaskuntzako adituek arduratu dira hauek transkribatzeaz.

Ordenantzekin batera, hiribilduko argazki zaharrak eta XVIII. mendeko mapak bildu dituzte. Liburuak 60 orri ditu eta 10 euroan eros daitezke museoan bertan. Museoko arduradunek esandakoaren arabera, arrakasta handia izan du eta jende asko hurbildu da galdezka.

Liburua argitaratzearekin batera, Udalak, Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin, jardunaldi bereziak antolatu ditu uztailerako Plentziako Lehen Udal ordenantzen V. mendeurrena ospatzeko.

Mai. 26 - Ek. 9

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Helduentzako Hezkuntza Eskolako ikasleen artxaketa.** Udaletxeko erakusketa aretoa. Maiatzaren 28tik 30era.

GETXO

► **Arte aplikatuak.** Algortako erakusketa aretoa. Ekainaren 9tik 14ra.

LEIOA

► **Sahara. Ametsa eraikitzen.** Erakusketa aretoa. Maiatzaren 15etik ekainaren 15era.

URDULIZ

► **Paisaiak eta erretratuak. José Ramón Mediavilla.** Erakustaretoa. Maiatzaren 5etik 30era.

► **Akuarelak. Alicia Vergara.** Erakustaretoa. Maiatzaren 5etik 30era.

► **Pintura erakusketa.** Erakustaretoa. Ekainaren 2tik 14ra.

MUSIKA

URDULIZ

► **Kontzertu didaktikoa: Harpa eta gitarra duoa.** Kultur Etxea. Ekainak 13, barikua. 18:30.

LEIOA

► **San Juaneke Kontzertu Zikloa.** Auditorium. Ekainak 12, 13, 14 eta 15. Sarrera: 3 euro.

ERANDIO

► **Alfredo Krau AMAK taldea.** Altzagako enparantza. Ekainak 1.

GETXO

► **XX. Nazioarteko Blues Jaialdia.** Sta Eugenia plaza. Ekainaren 6tik 8ra.



► III. Txixiburduntzi Eguna

Ekainaren 8an dator aurten txixiburduntzia

Berbalamiñe Euskera Elkarteak III. Txixiburduntzi Eguna antolatzeko asmoa du datorren ekainaren 8an. Negua amaitutakoan, egun batean, Leioako baserri eta auzoetako bizilagunak elkartu egiten ziren leku ezagunetan (Ondiz, San Bartolome, Peruri, Aldekoane, Martiartu...) eta egun pasa egiten zuten txerrikiak sutan erretzen eta jaten, dantza egiten... ondo pasatzen elkarrekin, alegia! Euskaldunok elkarrekin ondo pasatzeko asmoz, ohitura zahar hori berreskuratu gura dute eta horregatik ekainaren 8an Leioara etortzeko deia zabaldu dute. Egitarau potoloa dakarkigu Berbalamiñe Txixiburduntzi Egunerako: herriko dantzak, erromeria, puzgarriak... eta nola ez, bazkari ona noski!

• **Non:** Leioako udaletxeko enparantza • **Noiz:** Ekainak 8 • **Noiz:** 10:00

ZINEMA

LEIOA

► **Once.** Auditorium. Maiatzak 27, martitzena. 20:00.

► **Con faldas y a lo loco.** Auditorium. Ekainak 2, astelehena. 20:00.

► **El apartamento.** Auditorium. Ekainak 3, martitzena. 20:00.

► Testigo de cargo.

Auditorium. Ekainak 4, eguaztena. 20:00.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Gronholm metodoa.** Txalo. Altzagako merkatu zaharra. Maiatzak 29, eguena. 20:00. Sarrera doan.

BESTEAK

PLENTZIA

► **Pirinioetarako bidaia. Matrako Mendi Taldea.** Maiatzaren 31tik ekainaren 1era. Prezioa: 75 euro.

► **Araba Euskaraz.** Bastida. Charter Supermerkatutik. Ekainak 15, domeka. 8:30. Prezioa: 9 euro.

GORLIZ

► **Turismo Kalitateari Hurbiltasun Jardunaldia.** Erakusgela. Maiatzak 29, eguena. 16:30.

► **Botanika Jardunaldiak: "Gorlizko basoloreak". Iberrebarri.** Ekainak 1, domeka. 10:30.

► **Bizkaiko eskupilota txapelketa.** Pilotalekua. Ekainak 1 eta 8. 10:30.

► **Dantzaldi txiki.** Iberrebarri. Ekainak 7, zapatua. 11:00.

URDULIZ

► **Mugagabe zirkuitua: "Encuentros/La Resistencia".** Kultur Etxea. Ekainak 7, zapatua. 19:30. Sarrera: 3 euro.

LEIOA

► **Lamiako Maskarada.** Gaztelubide. Maiatzak 30, barikua. 12:00.

► **Txorierriko jaiak.** Ekainaren 6tik 8ra.

► **Hitzaldia: Billy Wilderen lana.** Auditorium. Ekainak 5, eguena. 20:00.

ERANDIO

► **Altzagako XVII. Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka.** Altzagako metroaren zelaigunea. Ekainak 1, domeka.

GETXO

► **Bizkaiko II. Erraldoien Eguna.** Bizkaiko Zubia. Ekainak 7, zapatua. 19:00.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Euskararen eguna

Maiatzaren 13an Euskararen eguna ospatu zuten Getxoko gaztetxoek Faduran eta Getxo Antzokian. 6 eta 12 urte bitarteko 1.400 umek dantzaka, kantari eta bertsoka ibili ziren goiz osoan. Herriko 12 eskolek parte hartu zuten, A, B eta D ereduakoak. Ken 7 taldearen ilargia abestia elkarrekin abestuz eman zioten amaiera jaialdiari. Baina 2008ko euskararen eguna amaitu bada ere, "euskararen egunak" ez dira bukatu. Ez dakit zuontzat, baina geuretzat behintzat, egunero da euskararen eguna.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





SIRENO DEL RIO DE LA PLATA, MARCOS LOPEZ

“Sirenoa”

Izaki hibridoak dira sirenak, arrain eta emakumezkoen arteko nahasketaren fruitu. Argazki hau ikusi arte hori uste genuen baina alboko irudiarekin Argentinako Marcos Lopez argazkilaria ospetsuak gizona izas-lamiak ere badirela egiaztatu digu. Munstro eder eta erakargarriak dira, hala ere, edertasuna baino gehiago ahotsa omen da euren xanmarik handiena, tentazio eutsiezina. Guk zoritxarrez oraindik ez dugu sirenak entzuteko aukerarik eduki.

[berbetan]

Euskara ogibide, hizkuntzari lotuta egon da beti Miren Dobaranen lanbidea (Berango, 1970). Euskal filologoa, Uribe Kostako Mankomunitatean euskara teknikari ibili zen, harik eta Berangoko alkate izendatu zuten arte. Orduan zinegotzia zen, baina patuaren eraginez, alkate kargua hartu zuen 29 urterekin. Bigarren legegintzaldia bukatu gabe, zazpi urtez alkate aritu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari egin zuten iazko martxoan. Bide laburra egin du han, ordea, Bizkaiko Foru Aldundira igaro baita. Orain arte bezala, euskara sustatzeko zuzendari gisa dabil. Baina, egunen batean, mankomunitatera itzultzea du buruan.

Miren Dobaran

Han edo hemen, euskararen bidean

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Berangoko alkate zazpi urtez, Eusko Jaurlaritzan urte bete eta orain, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustapen zuzendaria zara. Ibilbide oparoa horren gazte izateko.

—Bai, zazpi urtez alkate izan nintzen eta ia urtebetez Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendari, orain Bizkaiko Foru Aldundian nago eta egia esan aukera paregabea da Euskara Sustatzeko zuzendari izatea Bizkaian. Azken batean, ni lanbidez euskara teknikaria naiz eta, gainera, Josune Ariztondo foru diputatuaren esanetara behar egitea niretzako aukera paregabea da ikasteko eta ahal dudan neurrian ekarpenak egiteko.

—Politikagintza, txikitako ametsa? Ala era batera edo bestera, guztiak al dabilta politikan Euskal Herrian?

—Ez, nik ez nuen pentsatzen politikagintzan buru belarri ibiliko nintzenik baina euskara zinegotzi nintzela, alkatea hil egin zitzaigun eta niri tokatu zitzaidan alkate izatea. 29 urterekin Berangoko alkate izan nintzen. Zazpi urte horietan asko ikasi

nuen eta konturatu nintzen ikaragarriko aukera nuela nire herritarren alde gauzak egiteko eta, gainera, beste era batera egiteko, herritarren partaidetza zuzena ahalbidetuz, alegia. Eta orain ere ildo beretik jarraitu gura dut. Politika egiteko beste modu batzuk ere badaude, berrikuntza behar beharrezkoa da arlo horretan ere eta euskara sustatzeko zuzendaritza honetan, gizarte eragile eta herritarrakaz harreman estu eta sendoa izango dugu, euskararen

“Berangoko alkate nintzela konturatu nintzen aukera nuela herritarren alde egiteko, haien partaidetza ahalbidetuz”

normalizazio eta sustapenean alkarregaz lan egin ahal izateko.

—Urtebete ez da kargua hartu zenuela. Zer egiteko denbora eman dizu?

—Lehenengo eta behin, euskalgintzan dabilzan agenteekin hartu-eman zuzena izatea da helburua, elkar ezagutu, nahiz eta asko eta asko ezagutzen nituen Jaurlaritzan urtebete izan naizelako. Euskalgintzaren

egoeraren inguruan berba egin eta harreman katea ere sortzen ibili naiz. Euren ardurak, beharrianak, euskalgintzaren inguruan duten ikuspegia... hori guztia ezagutzea behar beharrezkoa da gure jardura plana garatu eta lideratzeko. Nik ondo dakit euskalgintzan dabilzan agenteak direla, hein handi batean, euskararen normalizazio eta sustapenerako ezinbesteko dinamizatzaileak. Beraz, ezinbestekoa da elkarlana.

—Euskara sustatzea, lan zaila eta potoloa.

—Euskara sustatzea lan zaila eta potoloa da, noski, baina erronka zoragarria beste alde batetik. Zaila da asmatzen, egia esan, ez dezagun ahatz euskararen normalizazioa ez dugula dekretu eta legeen bidez bakarrik lortuko. Egia da legeak eta, behar beharrezkoak direla, baina oinarri oinarritzakoena, gizartearen euskararekiko atxiki-



mendua lortzea da. Herritarrak eta, batez ere, gazteak hurbildu behar ditugu euskarara. Horretarako, gazteak eroso sentitu behar dira euskararekin, gozatu behar dute euskararekin, euskara topatu behar dute euren eguneroko aisialdirako jardueratan, ez bakarrik eskolan. Eta horretan lan egin behar dugu erakundeok gizarte eragileekin batera, herritarren atxikimendua lortu ahal izateko. Gauza asko aldatu behar ditugu eta mezuetan geratu barik, lan egin behar dugu denon artean, jendea euskarara erakartzeko.

—Erakundeek euskara sustatu eta indartzeko lan handia egiten duzuela esan duzu. —Erakundeok, esaterako, euskalgintzan dabilzan agenteek garatu egitasmoak diruz laguntzen ditugu, kalean dauden produktu asko eta asko guk diruz lagundutakoak dira, gizarteak sortutakoak dira gizarteari eskaintzeko, ez ditugu guk geuk ekoizten. Aurten, esaterako, ia 6.000.000 euro banatuko ditugu komunikabideen artean, teknologia berrietan lan egiten duten enpresa eta elkarrean artean, euskara elkarte, udal eta enpresen artean... Gainera, sakonago jorratu gura ditugu interneten garatzen diren egitasmoak. Izan ere, gure gazteetatik gehienek, interneten ordu asko sartzen dituzte eta euskal komunitateari euskarazko kalitatezko produktuak eskaini beharko zaizkie sarean. Guk argi daukagu euskarazko bizirauteko eta normalizaziorako aurrerapasuak emateko sarean egon beharko duela, ezinbestez. Esaterako, Bizkaiko Foru Aldundiak Bertsosale Elkarrekin martxan jarritako bertso plaza.tv egitasmoa diruz lagundu du, egitasmo horri esker bertsozale orok internet bidez jarraitu ahal izango ditu bertsozaleen ekitaldiak, bideoak eta berriak sartuko dira. Hori da, esaterako, gazteei zuzendutako euskarazko produktu erakargarrietako bat eta Bizkaiko Foru Aldundiak bertan egon beharra dauka, egitasmoa finantzatzeko; hori da gure egitekoa.

—Zeintzuk dira hurrengo urratsak?

—Gure helburua da euskararen erabilera bultzatzea eta herritarren atxikimendua eta

adostasuna lortzen saiatzea, euskara erabiltzeko borondatea herritarrarena berarena da, erakunde batek ezin du inor derrigortu euskara erabiltzen. Erakundeon egin beharra da herritarren hizkuntza-eskubidea bermatzea eta euskararen erabilera bultzatzea eta, azken horretarako, euskalgintzako gizarte eragileekin estu-estuan lan egitea da gure asmoa.

“Euskararen normalizazioa ez dugu dekretu eta legeen bidez bakarrik lortuko”

—Euskara eta politika ez ei dira nahastu behar, baina ez dira bata bestearen parte?

—Euskara eta politika ez dira nahastu behar inola ere. Euskara da gure herriaren ondarea eta herri honetako hizkuntza ofizialtako bat. Euskararen auzia ez da euskal hiztunen arazoa bakarrik, ezta ideologia jakin batekoena bakarrik. Euskara denona da, eta denontzat. Edozein modutan, administrazioaren egin beharra da euskararen erabilera indartzea eta herritar gehienek adostasuna lortzen saiatzea.

—Euskararen alde lanean dabilzan talde sozialek askotan kritikatu dute erakundearen lana, nahikoa egiten ez dutela esanez.

—Normala da talde sozialek erakundearen beti gehiago eskatzea. Gure asmoa da euren lan egitea, euskararen normalizaziorako bakoitzak geure egin beharra dugulako. Edozein modutan, guri dagokigu hizkun-

“Eragile sozialekin lan egiteko asmoa dugu, hizkuntzaren normalizaziorako bakoitzak geure egin beharra dugulako”

tza politika definitzea, herritarrek gu aukeratu gaituztelako une honetan.

—Talde horiekin harreman zuzena eta maiztasun handikoa lortu nahi zenuen kargua hartzean. Lortu al duzu?

—Bai, nire atea beti dago zabalik taldeekin berba egin, adostasunak lortu eta komunikazio zuzena izateko, izan ere, guk bulego

batean ez dugu ezer egiten, gure herritarrekiko lotura dira elkarteak eta agenteak. Beraz, nire eguneroko beharra da euren egotea, lan taldea direlako niretzat.

—Urteak dira irakaskuntza erduek euskalduntzen duten edo ez duten eztabaida, A ereduaren jarraipenaz... Oraindik ikasle askok zailtasunak ditu euskaraz aritzeko eskola bukatzean. Zer deritzozu?

—Bai, egia da D ereduaren ikasten duten ikasleek ere zailtasunak dituztela euskaraz mintzatzeko. Baina normala da, euskara ez dutelako eskolatik kanpo erabiltzen, ez dute euskara erabiltzen eguneroko bizitzan. Kontuan hartu askok eta askok euskara eskolan ikasi dutela, euren etxeko hizkuntza ez dala eta eskola hizkuntza baino ez da. Beraz, danon egin beharra da hori, hain zuzen, zerbitzu publikoetan bai, baina bereziki lagunartean, familiako harremanetan, interneten, lan munduan, aisialdian... euskara zabaltzea.

—Euskal filologoa zara. Horixe ikasi beharko da euskara menperatzeko?

—Ez, ez du jendeak filologo izan behar euskara menperatzeko, euskaratik urrun dauden herritarrak euskarara hurbildu behar ditugu, euskararekin gozatu behar du jendeak, euskara eskolatik kanpora ekarri behar dugu,

euskara erakargarri bilakatu. Euskara bigarren hizkuntza legez ikasi dutenek euren seme-alabei euskara transmititzen diete. Euskararen erabilera eremuak apurka-apurka indartzen joan behar dira, irakasleen gaitasuna ere hobetu beharra daukagu eta horrek guztiak hobekuntzak ekarriko ditu eta euskara erabiltzeko aukerak zabalduko ditu.

—Orokorrean, euskaraz egiteko beharrik ez du jendeak?

—Ez, Bizkaiko lekuri gehienetan ez da euskara behar eguneroko bizitzan.

—Eta Uribe Kostan, nola dago auzia?

—Uribe Kostan ikaragarriko aukera daukagu euskararen erabilera sustatzeko. Izan ere, herri asko ari dira hazten, guraso gazteak etorri dira eskualdeko herrietara bizitzera eta ume eta gazte asko ditugu gure artean. Horietako gehienek gainera, euskara ezagutzen dute. Erdiak baino gehiagok eskolan ikasi dute euskara, baina zoritxarrez, ez dute ohitura handirik eskolatik kanpo euskara erabiltzeko. Gure ahaleginik handienak egin behar ditugu, zalantza barik, ume eta gazte horiei euskara erabiltzeko aukerak eskaintzeko, bai erakundeetatik eskaintako zerbitzuetan, kirolak, jaiak, kultura..., bai gainerako esparruetan.

—Zer du Bilbok Berangok ez duenik (Aldundia vs. Udaletxea)? Zertan dute

lanek antza eta zertan dira desberdinak?

—Berangon, udaletxean, era guztietako zerbitzuak eskaintzen genituen, herritarrekiko harremanak zuzen-zuzenak ziren herri txikia zelako, erantzukizuna ikaragarria zen, eguneko 24 orduetan nintzen herriko ardura-duna, eta obsesioa zen herritarren bizi kalitatea hobetzea eta herritarrekin batera herria hobetzea. Aldundian daukadan erantzuki-

“Uribe Kostan ikaragarriko aukera daukagu euskararen erabilera sustatzeko”

zuna handia da, euskararen erabilera sustatzea barru-barrutik sentitzen dudana beharra delako, baina ez dauka alkatetzarekin zerikusirik, oro har.

—Etorkizunerako zer asmo duzu?

—Ni unean uneko lanean buru belarri sartzen naizen horietakoa naiz, lanbidez euskara teknikaria naiz eta egunen batean Uribe

Kostako mankomunitatean izango naiz berriro euskara teknikari lanetan, baina orain, eguneko ordurik gehienak ematen ditut euskararen alde lan egiten.

—Eta, noizko Euskal Herri euskalduna?

—Euskal Herria euskalduna izateko legeak eta hizkuntza politika eraginkorrak behar ditugu zalantza barik, baina ez dezagun ahazt gauzarik garrantzitsuenak,

herritarren borondatea dela; alegia, herritarren atxikimendua lortu beharko da, herritarrak euskarara erakarri beharko ditugu eta ni baikorra naiz. Horregatik lan egiten dut egunero-egunero, gure herritarrek ez dute gizarte elebakarra gura, baina helburua lortzeko denon artean lan egin beharko dugu. ○

“Getxo, akordaten naz”

Herriko euskaldun zaharren testigantzak, oroitzapenak eta euskara jasotzen dituen dokumentalaren...

...kopia bat eskuratu...

...nabi baduzu “uk@aldizkaria.biz” helbidera mail bat idatzi. 10 ale dauzkagu UK-ko harpidedunen artean banatzeko

137. zenbakiko irabazleak: Mikel Dominguez, Iñigo Santxo, Jon Aurre eta Kepa Amezaga



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 Algorta GETXO

e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37





JORGE YEREGUIREN ERAKUSKETA ALGORTAKO HILTEGIAN, 2007KO IRALA


Lurzoruaren balioa

Orrialdeotan ikus ditzakezuen argazkiak, laster bertan etxebizitzak egiteko eraitsiko duten Algortako hiltegiaren kanpoaldean erakutsi zituen Jorge Yereguik GETXOPHOTO 2007 jaialdian (goiko argazkia). Modu objetiboan eta inbiliariek erabiltzen duten estetika bera baliatuz, salmenta puntuak, etxebizitzaren erosleak eta hauen ametsetako etxeak dokumentatu ditu egileak triptiko hauetan.

Argazkiak: **Jorge Yeregui**









I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Tellexe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Tellexe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Argia amatatzen denekoa Getxoko eta Leioako zine denboraldiek laster esango dute "hurrengora arte!"



Querida Bamako filmak emango dio amaiera Zine-klubaren denboraldiari hilaren 28an

Udaldian ere zinemara joateko aukera badago, baina herrietako areto txikiak zine eskaintzek atsedendia hartzen dute uda partean. Hala, Leioako eta Getxoko kultur etxeek antolatzen duten zine denboraldia amaitzean dago, Leioakoak urrira arte edukiko ditu amatatuta argi guztiak eta Getxokoak litekeena da orain arteko Getxo Antzokiko egoitzari agur esatea, izan ere, gogora ekarri, antzokia eraisteko asmoa aspaldi jakinarazi zuela Getxoko Udalak; hala, zine eskaintzarako beste leku bat presatzea espero dugu.

Alde batetik, Getxo Antzokiko eta denboraldi honetako azkeneko filmak hurrengo hauek izango dira: Domekako Haur Zine eskaintzaren barruan *Las crónicas de Spyderwick* (hilak 25; 12:00, 17:00 eta 19:00); Zine-klubaren baitan *Querida Bamako* (zuz.: Omer Oke eta Txarli LLorente; hilak 28; 19:30); eta Cinema Paradiison, azpitoludun jatorrizko bertsoian, *Los crímenes de Oxford* (zuz.: Alex de la Iglesia; hizk.: ingelesa; hilak 30, 22:00).

Bestalde, KulturLeioako zine eskaintzaren barruko haur zineari eta zine komer-

tziari begirako zikloetako azkeneko lanak apirila amaieran eman zituzten. Ostera, Perseo Zineforumaren Sundance jaialdian saritutako filmen zikloko azken pelikula ikusteko aukera badago oraindik; lan hori *Once* izango da (hilak 27, 20:00).

Zinearen Astea Leioa

Zine denboraldiari amaiera hilaren 27an emango badiote ere, KulturLeioako zine arduradunek Zinearen Astea antolatu dute ekainaren lehenengo asterako, eta Billy Wilder-i zuzenduta egongo da. Egitarauan aurreikusten denez, 3 filmen emanaldia:

«Ekaineko lehen astean Billy Wilder-i begirako Zine Astea antolatuko du KulturLeioak»

Con faldas y a lo loco (ekainak 2; 20:00), *El Apartamento* (ekainak 3, 20:00) eta *Testigo de cargo* (ekainak 4, 20:00); *Zine materiala* erakusketa (ekainak 2-29; Ambigu) eta Felix Linaresen emango duen "Billy Wilder-en lana" berbaldia (ekainak 6, 20:00) egongo dira.

Bluesaldiaren XX. urteurrena Ekainaren 6tik 8ra Santa Eugenia Plazan egingo dira bost blues kontzertuak



Informazio gehiago: www.getxo.net

Nazioarteko Blues jaialdiak eman ohi dio hasiera Getxoko udako musika jaialdi garrantzitsuen egutegiari, eta pare pare dute blues zaleek zita. Ekainaren 6tik 8ra bitartean, iaz legez Erromoko Santa Eugenia Plazan, bost blues kontzertu iragartzen ditu egitarauak.

Aurten XX. urteurrena beteko du Getxo&Blues jaialdiak eta arduradunek adierazi dutenez, hasierako asmoei "blues musika estiloaren aberastasuna, joera ezberdinak erakustea eta bluesari merezi dituen garrantzia eta tokia aitortzea", fidel izango zaie oraingoan ere. Hala, urteurren borobil

honetarako emanaldiak hurrengoak dira: barikuan Mr Groovy and The Blue Heads talde andaluziarrak eskainiko du kontzertua Eugene "Hideaway" Bridges abeslari eta gitarr-jole handiaren taldearen aurretik; zapatuan Bizkaiko The Reverendos taldeak bertuko dio giroa gaueko eta jaialdiko izar nagusia izango den Robert Cray blues-soul musikariaren taldeari eta azken egunean, jaialdia dagoeneko ondo ezagutzen duen Shemekia Copelanden ahots ederra entzuteko aukera egongo da. Emanaldiak 21:30ean hasiko dira (domekan 20:30) eta sarrera doakoa da.

diskoak

The pub ibiltaria
Oskorri
Elkar



Euskal herri-kantuen ondarea ezagutarazteko asmoz, Oskorri sailaren 12. alea dakarkigu: *The pub ibiltaria*. Bi diska hauetako batean zuzenean publikoagaz eginiko abestiak agertzen dira eta bestean abesti instrumentalak bakarrik. Biak partituren liburuxka batekin kaleratu dira.

Viento, lucha y sol
Banda Bassotti
Realidad Musical



Talde italiarrak kaleratutako azken diska 14 kantuz osatzen da. Horien artean Jose Alfredo Jimenezek sortutako *El hijo del pueblo* abestia. Horrez gainera, *Viento nuevo* eta *Insciallah Mi Amor* abestietan Ska-P taldeko Pulpul eta Puerto Ricoko Mimi Maura abeslari famatuak parte hartu dute, hurrenez hurren.

La comisión de la estaca
Nucleo Terco
Potencial Hardcore



Komunismoaren jarraitzaile sutsua da Nucleo Terco eta *langileriaren rocka* bezala definitzen du berak konposatutako musika. Guztira 15 abesti ditu *La comisión de la estaca* diskan. Protesta da taldearen zeregin handiena. Diska honetan *La Larga Marcha*, *La ley del combate* eta *Sturmovik* lako kantak aurki ditzakegu.

kerobia >

Disko eta bide berriak



Materia Organikoa eta gainerakoak disko berria plazaratu du oraintsu Kerobia talde nafarrak. Baina kantuek eta doinu berriak ez dira dakarzikiguten

albiste bakarra, izan ere taldeak erronka berriari eutsi baitio: "SGAEtik geure burua bajaran eman dugu... gure musika eta autoprodukzioa izanik, libreki erreproduzitzeko aukera eman nahi diegu entzule guztiei, beraz, jendeak disko osoa, kalitate onean... libreki web orrialdetik har dezan utziko dugu". Hala, Creative Commons Aitortu-EzKomentziala-PartekatuBerdin lizentziagaz zabal liteke Kerobiaren lan berria; dena dela, dendetan ere egongo da salgai GOR disketearen ekimenez.

Informazioa: <http://materia.kerobia.com>

EHZ > ekainak 27-29 Zuberoari agur?

Hala iragarri zuten orain dela bost urte, eta hala beteko da aurten, Euskal Herria Zuzenean jaialdia azkeneko aldiz egingo da Indaueze-Mendin (Zuberoa). Datozen urtetarako egoitza berria erabaki ez badute ere, aurtengo jaialdirako ia dena dago prest; besteak beste, hurrengo kontzertuak egongo dira: Ojos de Brujo. Latzen, Ruper Ordoika, Tonino Carotone, Keny Arkana, Clawfinger... Horrez gainera, bestelako ohiko jarduerak egongo dira, adb.: Xiba herri kirolaren finala, haurren txokoa, antzerkiak, EHZren lehenengo edizioetako bideoak, Kimuak egitasmoaren euskarazko film laburrak...

Informazioa: www.ehz-festibala.com

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algortia

LIBURUAK

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Uretako hilobiak

Bigarren nobela, **Zulo bat uretan**,
plazaratu berri du **Iñigo Aranbarrik**

Ez du bere luma geldirik eduki bitarte horretan, baina arnasaldi luzea hartu du Iñigo Aranbarrik (Azkoitia, 1963) lehenengo nobela argitaratu zuenetik apirila amaieran plazaratu berri duen bigarren honetara arte, *Zulo bat uretan* (Susa, 2008). Adierazi duenez, ez du beste *Emon bear yako* (Susa, 1994) baten ildoko nobela bat idatzi nahi izan 14 urteren ostean, baina lehengo hura eta bigarren honen artean antzekotasunak badirela onartu du. Lehenengoan estiloaren aldeko hautuak trinkotasunera eroan zuen zelantza; orainoan, bere askatasun handiagoa dute, prentsari onartu dionez, "abalegindu naiz poesiak bereak dituen adjektibazioak ia ez erabil-

«Euskarazko libururik salduena izan da Donostiako Liburu Eguneako Azokan»

tzen, narratibara ekartzen, kamenak erabiltzen". Ostera, idazlearentzat, bi nobeletan ardurak gidatzen ditu pertsonaiak, are gehiago, "kontatu beharrendurda" da orainoan elkarregaz korapilatzen diren hamaika istorioen eta historia-zipritzinen gako.

Idazterako orduan Rizard Kapuscinski-
ren eta Joseph Rothen lanak gogoan izan dituela aitortu du Aranbarrik. Kazetaritza eta literaturaren arteko hartu-emanak, euro-



Iñigo Aranbarri (Azkoitia, 1963)

parron etorkinekiko jarrera faltsuak, Argentinako diktadura, makiak, oroimena, desagertuak etab. dira liburuko usainak; hilen, hiltzaileen, galtzaileen, irabazleen istorioak, ahantzura dira jario dituen perfumeak. Imanol Arellano kazetaria da narratzailea eta nobela hiru ardatz nagusitan bana liteke: Itoiz urtegi bihurtu baino lehen herriko hilerriatik lurgaineratu beharreko hilotzen istorioa, La Platako (Argentina) itsasbatailan egondako kapitain alemanarena eta Argentinan desagertutako senideak dituen Oskar Iriarte etorkin argentinarrarena (desagertuen hilotzak La Platako uretara botatzen zituzten...). Hala, hilobiak uretan.

Amaitzeko, Aranbarriren bigarren nobela hau euskarazko libururik salduena izan da Donostiako Liburu Eguneako Azokan. ◊

liburuak



Mandatariaren gerra
Jose Inazio Basterretxea
Elkar

Espainiako Gerra Zibileko beste pasadizo ilun bat da. 1938ko ekainean, Errepublikak galduta du Ebroko bataila, baina Pirinio Zentralean, tropa leialen 43. dibisioak gogor eusten dio frankisten erasoari. Egoera horretan, isilpeko mandatari bat abiatzen da eginkizun ezkutu bat duela.



Labirintoaren orduak
Amaia Iturbide
Erein

Gutxitan agertu ohi da atal honetan poesiako libururik eta orainoan genero horretako proposamen bat dakargu. *Labirintoaren orduak* Amaia Iturbide idazleak idatzitako poesia liburua dugu, entretenimendu eta sentipenez beteriko 132 orrialde.

[kirola]

Tenisa Barrikan

Urtez urte hasten joan den ekimena da **Barrikako Abaroa Tenis Kirol Taldearena**



Informazio gehiago: www.barrikatkt.com

Orain dela zazpi urte sortu zen, Nicolas Hildagoren ekimenez, Barrikako Abaroa Tenis Kirol taldea. Hastapenetan domeketan bakarrik ematen zituzten tenis eskolak, baina eskariak gora egin zuen, jendea teniseraz zaletu zen eta urtebetean Alberto Vidal gerturatu zitzaion Hildagori zapatuetan ere tenis eskolak emateko. Gaur egun Barrikako, Sopelako, Urdulizko, Gamizko, Fikako zein Getxoko 100 bat tenis jokalarik dihardute Barrikako taldean. Jokalariak bi talde nagusitan banatuta dabilta, beterranoen taldea eta gazteena, baina bi arduradunek goraiatu dutenez, "gehienez gazteen taldean dihardute eta talde hori da guretzat lehentasuna; beterranoak euren artean konpontzen dira partidak eta gainontzekoak antolatzen". Gazteen taldea 6-18 urte bitarteko kirolariak osatzen dute, baina Vidalek argitu duenez, horretan ondo bereizi behar dira eskola-lizentziagaz jokatzeko dutenak eta federatuak. Lehenengoak, 14 urtera artekoak, Bizkaiko Federazioaren Eskola Kirolaren ligan lehiatzen dira urtean zehar, eta horretan diharduten 4 talde dauzka Barrikako tenis taldeak,

benjamin, kimu eta haur mailakoak. Aurten lau talde horietako bi Kopako finaleraino iritsi dira. Bigarren taldekoak, federatuenak, hainbat klubean artean lehiatzen dira eta horrez gainera bai Barrikako Tenis taldeak bai beste klubek antolatzen duten txapelketetan ere parte hartzen dute. Izan ere, urteen poderioz eta tenislariaren eskariz, eskolak emateaz gainera txapelketak ere antolatzen dituzte Barrikakoek, urtean

«Tenis txapelketak prest dituzte; eta aurten padeleko eskolak ere ematen hasi dira»

bost bat, esaterako, orain dela gutxi hasi den klubeko federatuei begirako Tenis Absolutuko txapelketa soziala edota sanjuanetako ohiko txapelketa (ekainak 21-29).

Vidalek dioenez, "lagunarteko taldea da gurea, etxekoa, auzokideen, bazkideen eta jokalarien lana eskertzekoa da; gainera, aurten Udalak aldagelak eta komunak dituen gela jarri digu... giro polita sortzen da asteburuetan!". Gainera, urtez urte hasten doan taldea da, aurten padel eskolak ere ematen hasi dira (16 urtetik gora).

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol
moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.S.L. SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Jokin de Pedro > Irakaslea eta idazlea

“Zerbait ganorazkoa egin gura baduzu, denbora osoa eman behar duzu horretan”



Jokin de Pedro plentziarra

Aixerrota Institutuko irakaslea dugu Jokin de Pedro plentziarra. Euskara irakasten du eta beti ibili da hizkuntza eta literaturan murgildurik. Horren inguruan ere asko idatzi du De Pedrok, baita haurrentzako ipuin kontari bat egin ere. Oraingoan, baina, narrazio bat argitaratu berri du: *Irurac bat*. Liburuak emazteaz libratu nahirik, hilketa perfektua antolatatu duen Gari gizonaren istorioa kontatzen du. Horretarako profesional bat kontratatuko du, baina gauzak ez dira nahi bezala irtengo.

—Zer kontatzen duzu liburu berri honetan?

—Istoria, berez, ohikoa dugu. Kontua da zelan kontatzen den eta zer elementu erabili nahi izan ditudan istorioa biribiltzeko eta barne-loturak lortzeko. Hasieratik akziozko liburu egin nahi izan dut eta bertan gertaerak daude. Niri gertakizunak baino, gertakizunak nola dauden lotuta interesatzen zait: zein egitura eman gura nion liburuari. Helburua jakinmina piztea da eta

horretarako hiru elementu erabili izan ditut: objektu bat, alegia, *Irurac bat* izena ematen diona, zintzilikario bat. Hau objektu bakarra da, pertsona bakkarrak duena eta horregatik da identifikagarria eta era berean, salatarioa. Bigarren elementua sakelako telefonoa da: baikoitzak berea dauka, baina azken batean bakarra da, bere zenbakia dauka eta identifikagarria da; horregatik salatarioa bada, zuk dei bat egiten duzunean, zure telefonoa hor gelditzen da erregis-

traturik. Eta hirugarren elementua trena da: trena egokia da ekintzak jasotzeko geldiezina delako, bizitza bera bezalako.

—Nori zuzendua dago?

—Nik liburua idatzi nuen, beste barik. Buruan ideia bat nuen bueltaka, baina hori burutzeko astirik ez. Orduan, iaz, kurtso amaieran, oina apurtu eta baja bat izan nuen; ia hilabete etxean eman nuen, amaiera behar bezala idazteari ekin nion. Baina emaitza ikusi ostean, nik esango nuke nobela laburra irten dela eta bereziki gazteentzat. Gauza arina da egitura apur bat bereziagaz.

«Istoria biribiltzeko erabili ditudan elementuak dira *Irurac bat* nobelako muina»

—Orain arte euskara eta literaturari buruz idatzi duzu gehienbat. Zelan ikusi duzu zeure burua narrazioan?

—Oso gustura egin dut. Lehen esan bezala, denbora eduki nuen eta lasai egiteko aukera izan zen. Nik ez dakit egoera hori inoiz errepikatuko den: garbi ikusi dudana da zerbait ganorazkoa egin gura baduzu, denbora guztia behar duzula, neuk behintzat. Ni ez naiz gai etxera heldu eta azterketak zuzendu, gero pixka bat idatzi, ondoren afaria egin eta hurrengo egunean zazpitan jaitzeko... Honetarako denbora gehiago atera behar da eta nik ez dakit.

—Luzaroan ibili zara euskara irakasle, ikasleek irakurtzeko ohitura al dute?

—Nik esango nuke guk gaztetan eduki genuen ohitura bera dutela. Ez dut uste gutxiago irakurtzen dutenik. Askok irakurtzea gustuko dute, “asko” %20 bada ere, nagusien antzera. ○

TXITXIBURRUNTZI 08

EKAINAK 8, DOMEKA, UDALETXEKO PLAZAN



10.00tan txosnaren irekiera

10.30tan dultzaineroak herritik

Goizean zehar puzgarriak, umeentzako jolasak, eta San Juan jaietako karroza erakusgai herriko umeek bertan argazkia ateratzeko

12.00tan “Gure Ohiturak” dantzariak eta Berbalamiñek urtean zehar egindako txalaparta, dantza eta pandero ikastaroetako partehartzaileen erakustaldia

12.30etatik aurrera Txixiburruntzi jana

14.30tan Larrain dantza

15.00tan herri bazkaria

Arratsaldean zehar taloak

17.30tan erromeria Lisker taldearekin

20.00tan dana batu eta etxera!



BAPIRUKE UDALEKU IREKIAK

1. Ekainak 23-27 | 2. Ekainak 30-Uztailak 15 | 3. Uztailak 16-31
1^a 23-27 de junio | 2^a 30 de junio-15 de julio | 3^a 16-31 de julio

Euskaraz

TONIA: 1. Aldai Patroizabuz 2. eta 3. Romo, San Martin, Sma, Trinidad eta Geros.
NORENTZAT: 5 eta 12urte arteko urte euskaldunentzat.

Euskaraz / erdaraz

TONIA: 2. eta 3. Romo
NORENTZAT: 5 eta 12urte arteko urte erdaldunentzat.

Info +

PREZIOA: Bazkideek 1. tsandan 55 euro; 2. eta 3. tsandan 95 euro. Bazkide ez direnek 1. tsandan 70 euro; 2. eta 3. tsandan 125 euro. Onarritako errenta jasotzen dutenek 20 euro/hamabostaldia.
IZEN EMATEA: Ingresoen ziurtagiria eta osalidetzako txartelaren kopiarekin batera bulegora etorri eta inskripzio orria bete behar da. Euskadiko Kutsa 3035 0108 06 1081032766. EZIN DA TELEFONUZ EZ POSTAZ EGIN.
IZEN EMATE EPEAK: Bazkideentzat maiatzaren 20tik 23ra (biak barne) eta bazkide ez direnentzat maiatzaren 27tik 30era (biak barne). Ez da onartuko orduetarik kanpo ekartzen den orririk.


AFILIAZIOA:



LAGUNTZAK:



DIRUGILE:



BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA KARITATE KALEA 1, SOTOA, 10. BULEGOA, ALGORTA (GETXO)
ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA 10:00-13:30 ETA ASTEARTE ETA OSTEGUNETAN 16:30-19:30
TELEFONOA: 94 491 43 57 | WEB GUNEA: WWW.BLOGARI.NET/BL | POSTA ELEKTRONIKOA: BIZARRALEPOAN@EUSKALNET.NET

[nora]joan]

La Ria

Algortan bezala, baina Bartzelonan



La Ria-ko Josu Souto eta bere lankideak

Zine ikasketak egiteko asmoz joan zen Bartzelonara Josu Souto algortarra, orain dela 10 urte. Bizitzak buelta asko ematen ditu beti; buelta horretako batek Bartzelonan gelditzera eraman zuen Josu. Sukaldaritzarako grinak eta lur horietatik euskal kutsuko lokalek duten arrakastak La Ria taberna zabaltzera eraman zuten: “Hemen zabaltzen dituzten euskal taberna asko frankizia bat besterik ez dira; nik benetako euskal giroko taberna bat sortzeko ideia nuen buruan aspaldi, Algortan bertan egon daitezkeenak bezalakoak”.

Jatetxe hutsa baino askoz gehiago da La Ria. Euskal Herriko edozein tabernatan aurki ditzakegun pintxoak, txapiroak edo txuletoiak dituzte aukeran; baita Kataluniako eta Galiziako plater tipikoak ere:

“Aurreko jabeak galiziarrak ziren eta pulpoa zen euren berezitasuna; gu hori mantentzen saiatu gara. Orokorrean, penintsulako iparraldeko janaria daukagu”. Baina sabela bete eta zintzurra bustitzearekin batera, eskaintza kultural zabalarekin gozatzeko aukera ere badago. Musika, erakusketak, ipuin kontalariak... denek daukate lekua La Rian: “Ekainera arte Mikel Zabalza hondarribiarraren erakusketa izango dugu. Bezero eta lagunen proposamenak entzuteko prest gaude”. Manu Chao abeslaria giroa musikatzera hurbiltzen da noizbehinka: “Aspaldiko ezaguna daukat eta askotan gitarra jotzera hurbiltzen da”. Bartzelonan etxean bezala egon nahi duenak badauka nora joan.

Calle Milans 4, BARTZELONA
Tel.: 933 100 092

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asador Goieztzi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gauetz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa!"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]


<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Jende multzoek eta zalapartek nekatzen zaituzte eta horregatik lasaitasun bila zabilta orain, sarritan bakardadea. Indarberritu behar duzu zeure burua, baina kontuz: ez ahaztu zure inguruko lagunak.</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Asteburuko bidaiaren batean pertsona ezezagun batekin egingo duzu topo, bion arteko erakargarritasuna handia izango da eta ezkondu egingo zarete. Ez dakit zoriandu zaitudan ala doluminak eman...</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Lanpetuta, baina oso lanpetuta ibiliko zara eta horregatik lan mailan aurrera egiteko aukera izango duzu. Hala ere, arrakasta ekonomiko hori inor mindu barik lortzen saiatu beharko zenuke.</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Ez zara konturatuzen baina bada zure atzetik dabilen pertsona bat. Hortik harreman erromantikoa abia daiteke, baina halaxe gerta dadin zure berarekiko jarrera hotza aldatu beharko zenuke.</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Olioz bustitako gauzak eskuen artean izatea ez da batere erraza. Zeu ere horrelakoa zara, labankorra, iheskorra, aingirik bezalakoa. Ez duzu inor zure ondoan ikusi nahi eta beti ezkatzen saiatzen zara.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Lasaitasuna behar duzu. Emozio handi horien atzetik ibiltzek ez zaitu inora eramango eta, okerrago dena, ez dizu ezer onik ekarriko, akaso disgusturen bat. Hurbil daukazunari arretea gehiago.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Orrazkera berriaz erabat aldatuta zaude. Ikusten da zure itxura zaharrenekin nazkatua zinela eta moldeak apurtzen auzartu zarela. Zoritxarrez, ez dirudi ligatzeko balioko dizunik.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Aldizkarietara jo ohi duzu aspaldi honetan. Zeren bila? Hori da zeuk asmatu behar duzuna. Baina entzun arretaz: aldizkarietan ez duzu aurkituko zuk nahi duzun hori, kalean baizik, egunerokotasunean.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Loreak udan ihintza bezela, maite det dama gazte bat... horrela dio kantak eta horrela dio zeure bihotzak ere, ezta? Dama dagoen lekuan beste edozer jar daiteke: zaldun, emakume... eta gazteren orde ez ere, zahar...</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Iraganeko oroitzapen gogorrek baztertzea lortu duzu eta zure ingurukoek ematen dizuten maitasuna eta laguntasuna gozaten ari zara orain. Zure alderik onena ateratzen ari da eta indarrez gainera.</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Zure lagunek zuzana jotzen dute euren arazoak konpontzen lagun ditzazun. Zure pentsaera praktikoak asko egin dezake euren alde. Aurrerago garatu ahal izango dituzun ideia bikainak.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Siestaxoa egiteak on egiten dizula badakigu, baina, motel, bizitza ohean egitea ere! Alperrentzi ederra egina zaude, eta oraindik nekatuta zaudela esateko ausardia daukazu? Ez dut gura pentsatu urte batzuk barru...</p>

mungia
OKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".


Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Simetria dago. 2. Larrua. Bizkaieraz, simaur. 3. Gipuzkeraz, kilika-tuak. 4. Irinez, urez eta gatzaz osaturiko oreaz egiten den jangai. Konforme, bat gatoz. Iodoaren ikurra. 5. Sodioaren ikurra. Antzinako lurraldea, Adriatikoaren ipar-ekialdean. 6. Ipar., itxura. Trebe. 7. Ipar., zainketa. Bost. 8. Bazkalondo kuluska. Barazki mota. 9. Urarioaren ikurra. Bihi. Ipar., izu. 10. Lan handi. Odol-hodia.

Goitik behera

1. Barnatasun. 2. Ipar., izugari. Bokala. 3. Afrikako estatua. Pareta batean, alde batetik bestera igaro ahal izateko irekidurak. 4. Talde, multzo. Maisu edo gidari baten irakaspenak hartzen ditu. 5. Pena handia. Egoskin mota. 6. Kontsonantea. Eme. (Her.) Bada. Kontsonantea. 7. Ipuin. Kasik. 8. Aurkiarazi. 9. Ote, hitz elkarketan. Aurre. 10. Nahikoa. Pirinioetako oihana, Hechon. Bokala.

Soluzioak

V	N	I	A	Z	E	K	E	N	
I	Z	I	E	L	V			U	
V	Z	V	V	T	S	E	I	S	
Z	T	H	O	B	V	T	H	V	
O	I	V	I	V	K	V	H	T	
V	I	R	I	L	I	V	N		
I	S	O	D	V	I	G	O		
K	V	U	T	V	M	I	L	I	K
S	T	S	V	L	V	Z			
K	O	V	I	K					

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- ezkertiarra eta solidarioa
- ogibidez aktorea
- Oscar bat irabazi berri du

> Aurrekoaren erantzuna: Unai Elorriaga
> Irabazlea: **Javier Deba** *

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



• Freexkue liburua

www.argia.com



MARIBE URRESTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Areetako Zugatzarte futbol taldea, 1932-33

Hona hemen Erregionaleko Bigarren Maila Bereziko txapeldunak denboraldi horretan. Azpimarratzeko ondoko jokalarien jokoak: Alonso, Urquiza, Romaneli, Gorostiza, Turrez. Bestalde, gogoratu behar da Luis Urrestik anaia bat zeukala "Arenas Club"ean; Javier Riverok ere bai; Ramon Gorostizaren anaia, Guillermo Gorostiza "Bala Gorria", Athletic-eko jokalaria entzutetsua zen: 144 partidatan 106 gol sartu zituen, horien artean Athletic-en 100. gola. Argazkia garaiko egunkari zati batetik aterata dago eta orain arte irakurri duzuna, "Añala"k "La Cantera Vasca" sailean idatzitakoa, ere bai. Egunkaria ez dakigu ziur zein den, baina "El Mundo Deportivo" delakoan gaude. Uribe Kostari dagokion datu bat aipatuko dugu. Zugatzartek parte hartu zuen Plentziako "Txipio" futbol zelaiaren inaugurazioan, 1926ko azaroaren 21ean; Jose Olano alkateak egindako sakearekin hasi zen partida 15:15ean eta emaitza hauze izan zen: S.D. Plentzia 2-3 Zugatzarte.

Argazkian: Polo (ordezko atezaina), Eduardo Gutierrez, Nemesio Romaneli, Perez, Javier Rivero, Pedro Urquiza, Ramon Gorostiza, Salvador Turrez, Santos Alonso, Torino (atezaina), Luis Urresti, Lozano.



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

GARAZI FALCON > Aktorea

“Gauzak azken momenturako uzteko ohitura daukat”

Testua: **Ander P. Goikoetxea**



Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Egia esan, ez dut neure burua pelikula bat egiten ikusten. Ez nuke inolako pelikulatan protagonistaren papera egingo.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ez daukat miresten dudan pertsonaiarik.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Bai, asko. Esaterako, gauzak azken momenturako uzteko ohitura daukat. Oro har, ohitura txar asko ditut.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Bai. Bidaiatzea asko gustatzen zait eta beharbada horregatik joan naizen leku guztietara berriro ere joango nintzateke gustura.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?

Buff! Auskalo! Ez dakit. Aitortu beharra daukat, neuk ere ez daukadala oso argi zertan jardutea gustatuko litzaidakeen.

Irakurri duzun azken liburua?

Oraintxe bertan irakurri berri dut Haruki Murakami idazle japoniarraren *Tokyo Blues* nobela.

Ikusi duzun azken filma?

Aspaldian ez dut pelikularik ikusi. Azkena txinatarren inguruko bat izan zen, baina egia esan, momentu honetan ez naiz gogoratzen izenburuaz.

Gaua ala eguna?

Biak aukeratuko nituzke. Ez dakit, biek daukate alde onak: egunean zehar gauza jakin batzuk egin ditzakezu eta gauean zehar egiteko beste zenbait gauza ere badira. Esan legez, biak hartuko nituzke. ○

LABURREAN— Ale honetako Aitormenak atalerako Garazi Falcon gaztea hautatu dugu berba egiteko. Aurpegi eza-guna egingo zaizue, ETB 1eko *Goenkale* telesail famatuan Mirariren pertsonaia antzetzten baitu. Gipuzkoarra da bera, Donostiakoa, alegia eta 20 urte ditu. Psikologia ikasketetan aritua eta Zurriola Antzerki Eskolan ibilitakoa da. Aktorea izan arren, Garazi Falconek ez du bere burua pelikula bateko protagonista legez ikusten.

XX GETXO BLUES & JAZZ

EKAINA
2008
JUNIO

GETXOKO XX. NAZIOARTEKO BLUES JAIALDIA
XX FESTIVAL INTERNACIONAL DE BLUES DE GETXO

OSTIRALA 6 VIERNES 21:30 h

**Mr GROOVY & THE BLUE HEADS +
EUGENE HIDEAWAY BRIDGES BIG BAND**

LARUNBATA 7 SÁBADO 21:30 h

THE REVERENDOS + ROBERT CRAY BAND

IGANDEA 8 DOMINGO 20:30 h

SHEMEKIA COPELAND BAND



Plaza Sta. Eugenia
ROMO (Getxo) BIZKAIA

Sarrera dohainik | Entrada libre

